

nazioarteko

estatistika-esparruaren
egoeraren eta balorazioaren

txostena



kulturaren
euskal
kontseilua
consejo
vasco
de cultura

Nazioarteko estatistika-esparruaren egoeraren eta balorazioaren txostena

2007ko martxo

AURKIBIDEA

	Orr.
I. Aurkezpena	1
II. Nazioarteko erakundeen estatistika-esparruak	2
1. Unesco	2
2. Europako Batasuna	7
III. Estatistika-sistemak: Esperientzien azterketa	12
1. Quebec	12
2. Frantzia	16
3. Espainia	19
4. Katalunia	23
IV. Zeharkako azterketa	29
1. Deskribapen-elementuak	30
2. Informazioaren antolaketa	33
3. Elementu funtzionalak eta komunikaziokoak	37
V. Eranskina	40
1. Eranskina: sistema estatistikoaren fitxak	40
2. Eranskina: definizioak	52

I. Aurkezpena

Nazioko eta nazioarteko estatistika-sistemen azterketa honen xedea da, ondoren, Euskal Herrian, lurraldeen arteko konparazioak (nazio-mailakoak nahiz nazioartekoak) egiteko aukera emango duen sistema bat diseinatzea ahalbidetuko duten erreferentziak eskuratzea. Hortaz, azterlan honen dohain garrantzitsuenetako bat da, esperientziak bilduko dituen erreferente bat denez, tresna oso baliagarria izango dela Euskal Herrirako estatistika-esparru bat diseinatzeko.

UNESCOren eta Europako Batasunaren kasuak aztertu dira, horiek baitira nazioartean onarpen gehien duten ereduak estatistika-esparruen proposamen nagusiak. Quebeceko, Frantziako, Espainiako eta Kataluniako estatistika-sistemen garapen-esperientziak ere aztertu dira. Azterlana egiteko bigarren mailako iturriak erabili dira: erakunde horiek aldizka sortzen duten dokumentazioa, eta horien egitura eta egungo egoera aztertzen dituzten txostenak.

Bi mailalara zehaztutako protokolo batetatik abiatuta bildu da azterketa egiteko beharrezkoa izan den informazioa: batetik, estatistika-sistema bakoitzari buruzko informazio osatu, orekatu eta sistematizatua lortzeko, horien ezaugarri nagusiak jasotzen dituzten fitxa batzuk diseinatu dira (ikus 1. eranskina); bestetik, aztertu diren estatistika-sistemek erabiltzen dituzten adierazle eta aldagai guztien ezaugarri nagusiak jaso dira. Azkenik, sistemek erabiltzen dituzten definizio kontzeptual nagusiak ere jaso dira (ikus 2. eranskina).

II. Nazioarteko Erakundeen estatistika-esparruak

1. UNESCO

UNESCOK, 1986. urtean, *Kultur Estatistiketarako Esparrua* egin zuen, zein alderdiri buruzko informazioa dugun eta hutsuneak eta aukerak aurkitzeko erreferentzia-puntu baliagarria izan daitekeen jakiteko xedez.

Denborak aurrera egin ahala, UNESCOren esparrua zalantzan jarri da arlo ezberdinetatik. Aurkitu diren oztopo nagusiak ondoko hauek izan dira:

- 1) **Izaera etnozentrikoa.** Merkatu-sistema batean zirkulatzen duten ondasun-eta zerbitzu-fluxuak bezalako fenomeno kulturalen erregistroa lehenesten duela esaten da; horrela, bigarren maila batean islatuta geratzen dira izaera tradizionala, herrikoia, indigena eta/edo komunitarioa duten adierazpenak.
- 2) **Teknologia berrien ikusezintasuna.** Teknologia berrien eta bilakaera artistikoaren beraren ondorio diren adierazpen artistiko eta kulturalak ez direla islatzen adierazten da.

UNESCOren Estatistika Institutuak berak *Kulturaren munduko txostenean* adierazi du 1986. urtean proposatu zuen Esparrua errealitate berrietara egokitu behar dela, eta, horregatik, berrikustea proposatu du, nahiz eta gaur egun oraindik ez den planteatu ez noiz eta ez nola egingo den.

Jaso dituen kritika guztiak alde batera utzita, Esparru hau funtsezkoa izan da proposamen horretan beren estatistika-sistema propioak garatzeko eredia ikusi duten herrialde askorentzat. Hori izan da Kanadaren, Australiaren, Zeelanda Berriaren eta Europako hainbat herrialderen kasua, eta baita Europako Batasunaren estatistika-proiektuarena ere.

Hori horrela, UNESCOk ez du egun berezko estatistika-sistematik jardu-
nean. *Kultur Estatistiketarako Esparrua* ez da erabat garatu eta, ondoren azal-
duko dugun bezala, ezarritako eremu batzuetako datuak besterik ez dira biltzen
egun. Hala ere, hasiera batean **hamar maila** hauei buruzko informazioa biltzea
zen helburua.

1. Kultura ondarea
2. Inprimatutako materialak eta literatura
3. Musika
4. Arte eszenikoak
5. Arte plastikoak eta ikus-arteak
6. Zinema
7. Irratia eta telebista
8. Jarduera soziokulturalak
9. Jokoak eta kirolak
10. Izadia eta ingurumena

Kultur prozesuen inguruko **bost funtziori** buruzko informazioa ere bildu
behar zen:

1. Sorkuntza/ekoizpena
2. Hedapena/komunikazioa/banaketa/transmisioa
3. Kontsumoa/harrera
4. Zainketa/kontserbazioa/erregistroa/babesa
5. Parte-hartzea

Hamar maila horiek bost funtzioekin elkar gurutzatu ondoren, **UNESCOk
balizko berrogeita hamar eremuren matrize bat proposatzen zuen** adierazle
kulturalak sailkatzeko.

Esan den bezala, 1986ko Esparrua ez da erabat garatu. Gaur egun, UNES-
COK **lau arloren** inguruko informazioa baino ez du biltzen sistematikoki:

1. Liburuen ekoizpena (*Book production*)
2. Filmak eta zinema (*Films and Cinemas*)
3. Liburutegiak (*Libraries*)
4. Prentsa (*Press*)

Egun Irratiari eta Telebistari buruzko ikerketa bat (*Radio and Television Broadcasting Statistics*) eta idatzizko prentsari buruzko beste bat (*Newspaper Statistics*) daude abian.

Arlo horiei buruzko informazioa *UNESCO Institut for Statistics* (UIS) ize-nekoak kide diren herrialdeei aldizka igortzen dizkien galdetegiak bidez biltzen da. Orain arte informazioa biltzeko diseinatu diren galdetegiak bere web orrian eskura daitezke (www.uis.unesco.org).

Informazioa (UNESCOK berak ekoiztutakoa nahiz kanpokoa) sistematizatzeko saialdi garrantzitsuenetako bat *World Culture Report (Kulturaren munduko txostena)* izenekoaren argitalpenarekin gertatu da. Horrekin, ez da Esparrua berrikustea lortu (sektore ezberdinetatik eskatu den bezala), baina komunikazio-estrategia batetik abiatuta, kultur estatistiken mundu-mailako sistematizazioa lantzea lortu da.

Horri dagokionez, kontzeptualki itunduta egongo den kulturaren eta garapenaren inguruko nazioarteko esparru bat finkatu beharra azpimarratu da. Horretarako, munduko txostenaren inguruan lan egiten hasi dira, eta gai horri buruzko ikerketa-bilerak eta mintegiak egin dira. Garrantzitsuenetako bat 2002. urtean Montrealen egin zen *Kultur estatistikei buruzko Nazioarteko Sinposioa* izan da.

Estatistika-datuez gain, *Kulturaren munduko txostenak* munduko egoeraren azterketari edo ikerketei buruzko artikulak ere hartzen ditu barruan, eta 2000. urteko edizioan kulturaren neurketari buruzko monografiko bat ere jaso zuen, Kanadako, Filipinetako, Italiako eta Frantziako esperientzien aurkezpenetik abiatuta.

1998. urteko txostenak oinarriak finkatu zituen. Txostenaren hitzaurrean adierazten denaren arabera, “*txostenaren helburuetako bat da datozen urteetan munduko kulturaren neurgarriak diren alderdi horiek zabaltzeko prozesu bat abiaraztea, ondorengo txostenek deskribapen askoz ere osatuagoa ekarri dezaten*”.

2000. urteko txostenean adierazle kulturalen aukera zabaltzeko lehenengo urratsak eman ziren, aurretik inoiz aztertu ez diren arlo kulturantzei buruzko sei taula berri oinarritzat hartuta (hizkuntza nagusiak, erlijio nagusiak, jai nazionalak, jai herrikoiak eta erlijiozkoak, gune kultural/natural bisitatuenak).

Txosten horietan bildutako informazio guztia sistematizatzeko lana 100 herrialdek baino gehiagok bete zuten galdetegi batetatik abiatuta egin zen neurri

handi batean. Gainera, zenbait kasutan, berariazko galdetegiak osatu zen lan hori. Jaso zen erantzuna oso ona izan zenez, bi urtez behin galdetegi bat prestatzeko eta, ondoren, emaitzak argitaratzeko aukera planteatu da. Galdetegi horrek arlo kultural garrantzitsuenak estaliko lituzke, eta etorkizunean egin daitezkeen munduko txostenen informazio-bilketarako lan-programa indartuko luke.

Kulturaren munduko txostenean argitaratutako datuak hogeitau bat iturritatik datoz. Ahal izan den guztietan gobernuen datu ofizialak erabili dira, nazioarteko erakundeek homologatutakoak. Kopuru ofizialik ez zuten kasu horietan, datuak kalkulatu egin ziren. Beste kasu batzuetan, adierazleak zuzenean bildu ziren merkataritza-erakundeetatik, erakunde profesionaletatik eta nazioarteko erakundeetatik. Edo, bestela, *World Statistics Ltd*-k berariazko adierazleak sortu zituen.

Txosten horietan, kultur adierazleak **sei eremuren** inguruan sistematizatu ziren:

1. Kultur jarduerak eta joerak

- 1.1. Egunkariak eta liburuak
- 1.2. Liburutegiak eta kultur papera
- 1.3. Irratia eta telebista
- 1.4. Zinema eta filmak
- 1.5. Musika erregistratua

2. Kultur ohiturak eta ondarea

- 2.1. Hizkuntza nagusiak
- 2.2. Erlijio nagusiak
- 2.3. Jai nazionalak
- 2.4. Jai herrikoiak eta erlijiozkoak
- 2.5. Gune kultural bisitatuak
- 2.6. Gune natural bisitatuak
- 2.7. Munduko ondarearen guneak

3. Berrespenak

- 3.1. UNESCOren eta LANEren kultur eta lan arloko hitzarmenak (1999)
- 3.2. Nazio Batuen giza eskubideen inguruko hitzarmenak

4. Kultur merkataritza eta komunikazioaren joerak

- 4.1. Kultur merkataritzaren joerak

- 4.2. Kultur merkataritzaren banaketa, motaren arabera
- 4.3. Turismo-fluxuak
- 4.4. Nazioarteko turismoa
- 4.5. Komunikazioa
- 4.6. Komunikazioaren teknologia berriak

5. Itzulpenak

- 5.1. Itzulpenak eta atzerriko hizkuntzetan idatzita dauden liburuak
- 5.2. Itzulpenak, jatorrizko hizkuntzaren arabera
- 5.3. Egile itzulienak

6. Testuinguru kulturala

- 6.1. Hezkuntza
- 6.2. Goi-mailako hezkuntza atzerrian
- 6.3. Giza kapitala
- 6.4. Demografia eta osasuna
- 6.5. Ekonomia
- 6.6. Gizarte-segurantza
- 6.7. Ingurumena eta biodibertsitatea

Emaitzen komunikazioa

UNESCOk informazioa zabaltzeko bide ugari ditu, behin ikerketak amaitu ondoren. Alde batetik, emaitzak UNESCOren Estatistika Institutuak kudeatzen duen datu-base batean argitaratzen dira (www.uis.unesco.org). Datuak, taulatan eta grafikoetan aurkezten direnak, hiru formatutan eskaintzen dira:

- Excel, erraz deskargatu eta erabili ahal izateko.
- HTML, nahikoa banda-zabalera ez duten erabiltzaileentzat.
- Web interaktiboa, kontsultak egiteko eta neurrirako taulak egiteko aukerarekin.

Datu-basean estatistika-taulatan erabiltzen diren aldagai guztien definizioak zehazten dira (Metadata).

Gainera, UNESCOk aldizka argitaratzen ditu gauzatzen dituen ikerketan erabat edo partzialki oinarritzen diren txostenak, azterlanak, artikulak eta dokumentuak. Beraz, emaitza estatistikoak argitalpen horien bidez ere komunikatzen dira. *Kulturaren munduko txostena* kulturaren inguruko informazio estatistiko guztia sistematizatzeko egin den orain arteko ahale-

ginik garrantzitsuena da. 1998. urtean agertu zen lehendabizikoz, bi urtez behingo argitalpena izateko asmoarekin, baina 2000. urtetik ez da txosten berririk argitaratu.

Aipagarriak dira, halaber, *UIS Annual Report (UNESCOren Estatistika Institutuaren urtekaria)* eta *UIS Newsletter (Buletina)*; horiek aldizka argitaratzen dituzte eragiketa estatistiko eguneratuenak.

2. Europako Batasuna

Europako Erkidegoak, 1997. urtean, *LEG-Culture (Leadership Group sur les statistiques culturelles)* izeneko lan-taldea sortu zuen, kultur estatistiken inguruan. LEGen helburua zen Europako Batasuneko kide diren herrialdeetako kulturaren eta garapen sozioekonomikoaren arteko loturak hobeto ulertzera zuzendutako informazio-sistema koherente eta konparagarri bat ezartzea. Lantaldea hiru urtez jardun zen, eta aldi hartan egin zuen lanak nazioartean ereduzkoa izan den adierazleen eta eragiketa estatistikoen proposamen bat izan zuen ondorio.

LEGen lanaren abiapuntua UNESCOk 1986. urtean prestatu zuen esparrua izan zen. UNESCOren dokumentuak estatistika kulturalen ekoizpenean kontuan hartu beharreko kategorien lehenengo sailkapen bat proposatzen zuen. LEG ondorengo bi gai nagusi hauek aintzat izanik hasi zen lanean:

1. Fenomeno kulturalak izan duten bilakaera dela-eta, hasiera bateko ereduzko eskeman zenbait aldaketa sartu behar izan dira.
2. Estatistikak harmonizatzeko prozesuak teoriari eragiteaz gain kultur politika ere kontuan izan behar du.

LEGen helburu eraginkorrak ondorengo hauek izan ziren:

- Kulturalak besterik ez diren jarduera-sektore guztientzako ardatza zehaztea.
- Kultur jardueren sailkapen bat egitea, UNESCOk zehaztutako esparruan oinarrituta.
- Kultur estatistikak hobetzea eta garatzea, lehendik dauden estatistiketatik abiatuta.
- Kultur jardueren eskaintza eta eskaria deskribatzeko aldagaiak eta adierazleak zehaztea.

LEG lau lan-taldetan antolatu zen. Lan-talde horien egitekoak ondorengo hauek ziren:

- Kultur jardueren sailkapena egitea (*Task Force 1*).
- Lanbideen sailkapena egitea (*Task Force 2*).
- Kulturaren eta gastuen finantzazioa aztertzea (*Task Force 3*).
- Kultur eremu batzuetako zein besteetako jardueren inguruko eskaria aztertzea, banakako parte-hartzeari dagokionez (*Task Force 4*).

LEGen xede nagusienetako bat izan zen nazio mailan nahiz Europa mailan alderdi kultural kopuru jakin bat aztertzea ahalbidetuko zuten adierazleen proposamena egitea. Proposatutako adierazleak erabiltzen diren datuen fidagarritasunaren mende daude erabat. Kultur adierazleen multzo osatu batek egungo lanei jarraipena ematea dakar. Horretarako, gutxieneko harmonizazio-maila bat behar da, eta baita fenomeno kulturalak aztertzeke erabili diren definizioen eta sailkapenen inguruko adostasun handiagoa ere.

Adierazleen inguruan egindako lana dela-eta eskuratu den esperientziari esker, ondorengo hauen garrantzia azpimarra daiteke:

- Proposatutako adierazleak abiapuntu bat dira.
- Hautatu diren 4 eremuen inguruan garatutako adierazleak datu-bilketa esperimental batean oinarritzen dira.
- Kulturaren sektoreko enpleguari dagokionez, proposatutako adierazleak NACEren sailkapenetatik (*Europako Erkidegorako ekonomia-jardueren sailkapen estatistikoa*) edo CITPtik (*Lanbide-moten Nazioarteko Sailkapena*) abiatuta eraiki daitezke, ondorengo aldagai hauei garrantzi berezia emanez: sexua, adina, hezkuntza eta heziketa, lanbide-maila, lanaren iraupena, lanean egiten duen denbora eta langabezia egiten duena.
- Finantzaketari eta gastuei dagokienez, lehentasunekoak izango dira gobernuaren gastuei buruzko adierazleak oro har, eta baita hautatutako eremuetan esku hartzen duten kultur erakunde horien gastuei buruzkoak ere.

LEGek proposatzen duen eremukako sailkapenak baditu zenbait ezberdintasun UNESCOk proposatutako esparruaren aldean:

- Kontuan hartzen dira: arkitektura, komunikabide berriak, arte plastikoak (ikus-arten kategoria bakarra).

• Ez dira kontuan hartzen: kirolak, ingurumena, publizitatea, hizkuntzak eta jokoak.

LEG taldeak erabaki zuen informazio kulturala ereduzko **zortzi eremutan** antolatuko zuela. Eremu horiek, aldi berean, hainbat ataletan banatzen dira:

1) Ondare kulturala:

- 1.1. Monumentu historikoak
- 1.2. Museoak
- 1.3. Gune arkeologikoak
- 1.4. Beste ondasun-moduak.

2. Agiritegiak

3. Liburutegiak

4. Liburua eta prentsa

- 4.1. Liburua
- 4.2. Prentsa

5. Arte plastikoak

- 5.1. Arte plastikoak (adibidez, diseinua)
- 5.2. Argazkigintza
- 5.3. Diziplina anitzekoak

6. Arkitektura

7. Arte eszenikoak

- 7.1. Musika
- 7.2. Dantza
- 7.3. Antzerki musikala
- 7.4. Antzerkia
- 7.5. Diziplina anitzekoak
- 7.6. Bestelakoak (zirkua, mimoa, eta abar)

8) Entzunezkoak eta ikus-entzunezkoak/multimedia

- 8.1. Zinema
- 8.2. Irratia
- 8.3. Telebista
- 8.4. Bideoa
- 8.5. Soinu-erregistroak
- 8.6. Multimedia

Eremu kulturaletarako hurbilketa hori eremu bakoitzeko jarduera ekonomikoak ondasun kulturalen ekoizpen/erreproduzio zikloaren barruan kokatzera zuzendutako hurbilketa funtzional batekin osatzen da. **Sei funtzio** zehaztu ziren:

1. Kontserbazioa (babesteko, zaharberritzeko, kontserbatzeko eta mantentzeko jarduerak)
2. Sorkuntza (normalean egile-eskubideak ekartzen dituen jatorrizko lana)
3. Ekoizpena (jatorrizko lana jendeari helarazteko erabiltzen diren ekintzak)
4. Hedapena (ekitaldien antolaketa eta sustapena barne)
5. Merkataritza / salmentak
6. Gaikuntza / hezkuntza

LEGek egin duen lana azpimarragarria da (aipatu behar da adierazleen garapenerako lan esperimental bat abiarazi zela, eta horretarako lau kategoria hautatu zirela: museoak, liburutegiak, ikus-arteak eta antzerkia), baina, oraindik ere, kultur estatistikak Europa mailan konparatu izateko aukera errealak oso mugatuak dira.

LEG-Culture izenekoak Europako Batasunerako egin zuen proposamenaz haraindian, kultur estatistikek gaur egun duten egoera ere aipatu behar da. Hain zuzen ere, *Europako Estatistika Sistemak* kultur estatistikak garatzea aurreikusten bada ere, horiek oraindik ez daude garatuta. Europako estatistiketan lehenetsua beste sektore batzuei eman zaie, eta kulturarekin lotutako estatistiken garapena beranduagorako geratu da.

Konparazioak egiteko aukera gehien eskaintzen duen esperientzia *Eurobarometro 56.0: Europarren parte-hartzea kultur jardueretan*, da. 2001. urteko irailean *European Opinion Research Group* taldearen zuzendaritzapean egin zen hedadura handiko inkesta bat da, kultur kontsumoari eta ohiturei buruzkoa. Inkesta horren emaitzei esker, Europako Batasuneko herrialdeetako eta eskualdeetako herritarrek kulturari eta komunikabideei dagokienez dituzten portaerak alderatu daitezke:

1. Irratia eta telebista EBn
2. Ordenagailuaren eta interneten erabilera EBn
3. Zer irakurtzen dute europarrek?

4. Europarrak eta musika
5. Europarren kultur jarduerak
6. Jarduera artistikoen praktika

Azkenik, ondorioztatu daiteke *LEG-Culture* taldearen lanak, oso garrantzitsua eta ereduzkoa bada ere, inplementazio-maila eta sustapen handiagoak behar dituela Eurostaten eskutik, Europako Batasunarentzat ereduzkoa izango den estatistika-sistema bat eraikitzea lortu nahi bada behintzat.

Emaitzen komunikazioa

Jendeak oro har kontsultatu ditzakeen Europa mailako kultur estatistikei buruzko emaitzak *Eurobarometro 56.0: Europarren parte-hartzea kultur jardueretan* (2002ko ekaina) izenekoari buruzkoak dira.

III. Estatistika-sistemak: esperientzien azterketa

1. Quebec

Quebecen Kulturaren eta Komunikazioen Behatoki bat dago. Behatoki hori da, Kulturaren eta Komunikazioaren Ministerioarekin lankidetzan, Quebeceko kulturarekin eta komunikazioekin lotutako estatistika guztiak ekoizteaz arduratzen dena, Quebeceko Estatistika Institutuari jarraituz.

Behatokiaren helburua da kulturaren sektore ugarietan esku hartzen duten eragileen behar errealei eta zehatzei erantzutea, eta baita estatistiken nahiz ikerketaren inguruan sektore horiek ukitzen dituzten eragileen beharrei erantzutea ere.

Behatokiaren zereginak dira:

- Estatistiken sistema integratu bat garatzea, kulturaren eta komunikazioen eremu osoa estaltzeko.
- Kulturaren eta komunikazioen sektore ugarietan parte hartzen duten eragileen artean ezagutzak elkar trukitzea bultzatzea.
- Ikerketa-unitateekiko edo -zentroekiko lankidetzak bultzatzea, batez ere unibertsitate-eremuaren barruan.
- Bazkideek (*partenaires*), instituzionalak izan nahiz pribatuak izan (elkarteak, sindikatuak, enpresak, eta abar), eskura dituzten datu-baseak aztertzea, eta beste estatistika-ekoizleekiko elkarrekintzak nahiz hurbileko espazioetan parte hartzen duten horien guztien arteko topaketak sustatzea.
- Baliabide berrien sorkuntza sustatzea, batez ere negozioa sortzeko oinarri baten gainean zerbitzu profesionalak eskaintzetik abiatuta.

- Kulturak eta komunikazioek egungo gizartean duten garrantzia eta funtzioa dokumentatzea, eta nazioarteko joera nagusien inguruko hausnarketa bultzatzea.

Behatokia lau erakunde hauen ekarpenen bidez finantzatzen da:

- Quebeceko Kultura eta Komunikazio Saila
- Quebeceko Arteen eta Letren Kontseilua
- Enpresa Kulturalen Garapenerako Elkarte
- Quebeceko Estatistika Institutua

Quebeceko informazio-sistema esparru kontzeptual batetatik abiatzen da, eta hamar eremu kulturaletan oinarrituta egituratzen da:

Eremu kulturalak

1. Ikus-arteak eta ofizio artistikoak

- 1.1. Ikus-arteetan artistak
- 1.2. Artista-zentroak
- 1.3. Artelanen erosketak

2. Arte eszenikoak

- 2.1. Ikuskizunetara joateko maiztasuna
- 2.2. Dantza
- 2.3. Arte eszenikoen hedapena
- 2.4. Musika
- 2.5. Antzerkia

3. Ondarea, museoak eta agiritegiak

- 3.1. Museoak

4. Liburutegiak

- 4.1. Liburutegi publikoak
- 4.2. Unibertsitateetako liburutegiak

5. Liburua

6. Prentsa

- 6.1. Prentsa kulturalaren argitaratzaileak
- 6.2. Argitalpen kolektiboak (erakundeenak)

7. Soinu-erregistroak

8. Zinema eta ikus-entzunezkoak

- 8.1. Filmak

9. Irratia eta telebista

- 9.1. Telebista pribatua
- 9.2. Telebista publikoa
- 9.3. Telebista espezializatua eta *pay-per-view*
- 9.4. Irrati pribatua
- 9.5. Irrati publikoa
- 9.6. Kable bidezko irrati eta telebisten banatzaileak eta bestelako banatzaileak.
- 9.7. Telebista ikusleak
- 9.8. Irratia entzuleak

10. Multimedia

Horiez gain, **zeharkako lau eremu** ere baditu:

Kulturarekin eta komunikazioekin lotutako lanbideak

1. Sailkapena eta profesionalak
2. Profesionalen banaketa

Norbanakoak eta etxeak

1. Kultur ohiturak
2. Etxetako gastua
3. Aisialdiaren erabilpena

Kulturan egiten den gastu publikoa

1. Quebeceko administrazio publikoa

Eskualdeak

1. Eskualdekako deskribapen estatistikoak

Emaitzen komunikazioa

Behatokiaren web orritik (www.stat.gouv.qc.ca/observatoire) kontsultatu daitekeen datu-baseaz gain, lortzen doazen emaitza estatistiko nagusiak biltzen dituzten zenbait argitalpen kaleratzen dira noizean behin:

- *Quebeceko Kulturaren eta Komunikazioaren inguruko estatistika nagusiak*. Urtean behin. Argitalpenaren hurrentasuna: 2006ko edizioan 2005eko, 2004ko eta 2003ko datuak. Paperezko bertsioa (salgai) eta online bertsioa (doan).
- *Industria zinematografiko eta ikus-entzunezko ekoizpen independenteei buruzko estatistikak*. Urtean behin. Argitalpenaren hurrentasuna: 2006ko

edizioan 2005eko datuak. Paperezko bertsioa (salgai) eta on-line bertsioa (doan).

- *L'Observatoire.com*. Erakundearen jardueren inguruko berrikuntzei eta garatzen ari diren ikerketen emaitzei buruzko aldizkaria. Aldizkakotasun irregularra. Paperean eta on-line (doan).
- *Estatistikak laburrean*. Argitalpen honek Quebeceko sektore kulturalarekin eta komunikazioen sektorearekin lotutako gaiak heltzen ditu. Ale bakoitzak estatistika informazioaren azterketa, taulak eta grafikoak erakusten ditu. Aldizkakotasun irregularra. Paperean eta on-line (biak doan).

Quebeceko Behatokia estatistika-sistemaren inguruan egiten den lanaren oinarri kontzeptual diren sailkapenak eta nomenklaturak sistematizatzen eta argitaratzen aritu da, etengabeki. Sailkapen horiek ondoko hauek dira:

- *Quebeceko kulturaren eta komunikazioen jardueren sailkapen-sistema*. 2004. On-line kontsultatu daiteke.
- *Quebeceko kulturaren eta komunikazioen lanbideen sailkapena*. 2001

Quebeceko Behatokiak abian jartzen duen beste komunikazio-estrategia bat da filmei buruzko datu-basea. Datu-base hori Behatokiaren web orrialdetik ere kontsulta daiteke.

1975. urtetik *Quebeceko zine-aretoei eta zine-parkeei buruzko inkesta* egiten da hilero. 1985. urtean aldaketa nabarmenak egin ziren informazioa bil-tzeko moduan, eta horrek informazio askoz ere aberatsagoa eskuratzeko aukera ekarri zuen.

Inkesta horri dagokionez, beraz, 1975. urtetik aurrerako emaitzak eskuratu ditzakegu. Baina, 1993. urtean, informazioa aurkezteko modua aldatu egin zen, Ministerioaren, Enpresa Kulturalen Garapenerako Elkartearen, Quebeceko Filmmotekaren, Zine Konpainiaren eta Estatistika Institutuaren arteko lankidetzari esker.

Teknologia berrien garapenari esker, gaur egun nahi duen orok kontsulta ditzake datu horiek.

Filmei buruzko eta film horien ikusleei buruzko bilatzaile bat da. Bilaketak hiru irizpideren arabera egiten ditu: izenburua; ekoizpen-herrialde nagusia; eta ekoizpen- eta ustiapen-urtea.

Behatokiak dituen komunikazio-sistemez gain, Quebeceko Kultura eta Komunikazio Ministerioa ere arduratzen da zuzenean informazio estatistikoa zabaltzeaz. Hori egiteko hiru plataforma erabiltzen ditu:

- *Ministerioaren argitalpenak*. Ministerioak ekoiztutako azterlan eta estatistika guztiak biltzen dituen datu-basea da. Autorearen, gaiaren, eskualdearen edo argitalpen-urtearen arabera kontsulta daiteke.
- *Kulturaren eta Komunikazioen Quebeceko Atlas*a. Erraz kontsultatu daitezkeen mapekin eta grafikoekin, Atlas honek atlas tradizionalen ezaugarriak eta teknologia berriak konbinatzen ditu, Quebeceko kulturaren eta komunikazioen sektore bakoitzeko eskualdeko estatistikak eskaintzeko. Garapen kulturalaren adierazleak Quebeceko eskualde bakoitzerako eskaintzen ditu Atlasak, eskualdeen arteko konparazioak egiteko aukera emanez.
- *Eskualdekako deskribapen estatistikoak*. Ministerioko ikerketen eta politiken zuzendaritzak Quebeceko eskualde bakoitzerako bildu ditu kulturaren eta komunikazioen inguruko datu estatistikoak (Nord-du-Québec eskualderako izan ezik). Lan horri esker, 2005. urtean, eskualdekako deskribapen estatistikoak argitaratu ziren. Horiei esker eguneratuta mantendu dezakegu eskualdekako garapen kulturalaren erronka nagusiei buruzko hausnarketa.

2. Frantzia

Département des études, de la prospective et des statistiques (DEPS) da Frantziako Kultura Ministerioaren estatistika-zerbitzua, Frantziako Estatistika Institutu Nazionalari (INSEE) lotutakoa, eta Frantzian gertatzen diren kultur estatistika guztiak sistematizatzeaz arduratzen da.

Hirurogeiko hamarraldian sortu zen (hasieran Azterlanen eta Ikerketen Zerbitzua izan zen bere izena), eta Kultura eta Komunikazio Ministerioaren azterlanetarako zerbitzu nagusia da. Kulturaren esparruko azterlan sozioekonomikoak egiteaz arduratzen da bereziki.

DEPS izan da Europako korpus estatistiko kulturalaren garapenerako ekarpen garrantzitsuenak egin dituen erakundeetako bat. Europako Batasunaren esparruan kulturaren arloko enpleguari dagokionez bildu beharko lirakekeen datuen inguruko proposamena egin zuen lan-taldea (*Task Force 2*) zuzendu zuen DEPSk.

Horrela, **DEPSren helburua** da kulturaren inguruko datu estatistikoak ekoiztea eta zabaltzea, Legez ezarritako arau estatistikoei jarraiki. Horri dagokionez, Frantziako estatistika-sistema kulturala sistema hori elikatzen doazen

hainbat inkesten bidez jarduten da. Inkesta horietako batzuk iraunkorrak dira (aldizka egiten dira), eta beste batzuk, berriz, unean unekoak (DEPSren urteko programan aurreikusitako azterlanei lotuta egoten dira).

DEPSk beste bi erakunderekin batera egiten dituen **inkesta iraunkorrak** ondorengo hauek dira:

- *Goi-mailako irakaskuntza artistikorako establezimenduei eta irakaskuntza-establezimendu espezializatuei buruzko inkesta*. Aldizkakotasuna: urtean behin. Hezkuntza Ministerioa eta DEPS.
- *Eskualdeek, departamenduek eta udalerriek kulturaren arloan egiten duten gastuari buruzko inkesta*. Aldizkakotasuna: hiru urtean behin. DEPS.
- *Frantziarren kultur praktikei buruzko inkesta*. Aldizkakotasuna: zortzi urtean behin. DEPS.

Horiez gain, DEPSk zenbait eremu jakinetako informazio-ekoizpena estaltzeko **berariazko inkestak** ere aurreikusten ditu bere urteko programatan. Azken urteetan ondorengo inkesta hauek egin dira:

- *Agiritegi nazionalen erabiltzaileei buruzko inkesta*. 2003. DEPS.
- *Departamenduetako eta udalerrietako agiritegien erabiltzaileei buruzko inkesta*. 1999. DEPS.
- *Udal musika-eskolei buruzko inkesta*. 2000-2001 ikasturtea. DEPS.

Jarduera estatistikoa berariazko fitxategien eta/edo erregistroen (ikuskitzuna, ondarea, arte plastikoak, eta abar) edo Estatistika Institutuak (INSEE) edo beste administrazioek ekoiztutako inkesten ustiapenean nahiz erakunde ofizialek biltzen dituzten datuetan oinarritzen da. Zentzu horretan, azpimarragarria da sindikatuen jarduera, urtero beren jarduketaren eremuei buruzko xehetasuneko informazioa biltzeaz arduratzen baitira.

Beste erakundeek garatzen dituzten eta DEPSk biltzen dituen beste inkesta kultural iraunkorretatik azpimarratzekoak dira:

- *Liburuaren eta Irakurketaren Zuzendaritzak egiten dituen inkestak*, udal liburutegien egoerari buruzkoak. Aldizkakotasuna: urtean behin. Kultura eta Komunikazio Ministerioa.
- *Antzoki nazionaletarako eta zentro dramatiko nazionaletarako bertaratze-datuei buruzko inkesta*. Kultura eta Komunikazio Ministerioko musikaren, dantzaren, antzerkiaren eta ikuskizunen zuzendaritza. Aldizkakotasuna: urtean behin.

- *Unibertsitateetako liburutegiei buruzko inkesta* (ESGBU), Hezkuntza Ministerioko goi-mailako irakaskuntzen zuzendaritzak egiten duena. Aldizkakotasuna: urtean behin.
- *Argitaletxeen ekoizpenari buruzko urteko inkesta*, argitaletxeen sindikatu nazionalak egina. Aldizkakotasuna: urtean behin.
- *Diskoen salmentari buruzko estatistikak*, musika-argitalpenaren sindikatu nazionalak egina. Aldizkakotasuna: urtean behin.
- *Bideo-argitalpenen sindikatuak negozio- eta salmenta-kopuruei buruz egindako estatistika*. Aldizkakotasuna: urtean behin.
- *Zinema-filmen ikusle-kopuruari buruzko “75.000 Cinéma” inkesta*. Aldizkakotasuna: urtean behin. Médiamétrie.

Horiez gain, DEPS aldizka ekoizten diren **inkesta orokorretan** biltzen diren eta arlo kulturalarekin zerikusia duten estatistika-datuak aztertzeaz ere arduratzen da. Inkesta horiek ondorengo hauek dira:

- *Biztanleria aktiboari buruzko inkesta*. INSEE. Sektore kultural batzuetako zein besteetako enpleguari buruzko datu horiek guztiak erabiltzen dira.
- *Enpresen urteko inkesta*. SESSI (*Service des études et statistiques industrielles*). Kulturaren sektore batzuetan zein besteetan kokatzen diren enpresei (eta horien jarduerari) buruzko datu guztiak erabiltzen dira.
- *Frantziako etxeetako bizi-baldintzei buruzko inkesta iraunkorra*. INSEE. Zati finko bat eta beste zati aldagarri bat dituen inkesta bat da, urtero berariazko gai bati buruz egiten dena. 2003. urteko zati aldagarriak jendeak kirol eta kultur bizitzan duen parte-hartzea aztertu zuen.

Estatistika-lan horiez gain, DEPS barruko azterlanak egiteaz edo lehiaketan bidez ikertzaileei, laborategiei edo enpresei agintzen zaizkien lanetatik abiatutako azterlanak egiteaz arduratzen da. Azterlanak inkestetan eta datu-baseetan oinarritzen dira, eta Nazioarteko Gaietarako eta Garapenerako Ordezkaritzaren dokumentazio-lanaz balia daitezke. Azterlan horien emaitzak Ministerioaren eta oro har Estatuko Administrazioen nahiz bizitza kulturallean parte hartzen duten horien guztien esku jartzen dira, argitalpen edo topaketa modura.

Era berean, DEPSk ikerketaren arloan duen funtzioa indartu egiten da, barrurik edo Kultura eta Komunikazio Ministerioko beste zuzendaritzekiko nahiz sektore kulturalerako erakunde publiko eta pribatuekiko lankidetzan antolatzen dituen topaketei esker (jardunaldiak, mahai-inguruak).

Emaitzen komunikazioa

DEPSk biltzen edo ekoizten dituen datu guztiak 30.000 serie baino gehiago biltzen dituen datu-base batean sistematizatzen da. Datu horiek Departamentuaren beraren lanetarako erabiltzen dira, eta baita *Chiffres Clés* eta *Mini Chiffres clés* (bertsio laburtua) urtekari estatistikoak argitaratzeko ere. Datu-base horri esker informazioa erakunde profesionalen, ikertzaileen nahiz enpresen esku jartzen da.

Chiffres clés urtekaria 1992tik argitaratzen da, eta DEPSren erreferentziazko argitalpena da¹. *Mini Chiffres clés* bertsio laburtua, DEPSren web orritik deskargatu daiteke (pdf formatuan).

DEPSk ikerketa-lanak ere argitaratzen ditu, bilduma hauetan:

- *Question de culture* bilduma, azterlan nagusien argitalpenak biltzen dituen a. Salgai.
- *Les travaux du DEPS* bilduma, egin diren lanen txostenak biltzen dituen a. Doako banaketa zabala egiten da, eta DEPSren web orritik ere deskargatu daiteke.
- *Développement culturel* DEPSren aldizkarian aipatu bi bildumatan (*Question de culture* eta *Les travaux du DEPS*) argitaratutako azterlan gehienek laburpena agertzen da. Doako banaketa zabala egiten da, eta DEPSren web orritik ere deskargatu daiteke.
- *L'Observatoire de l'emploi culturel* izenekoaren Notes Bilduma, enpleguari buruzko datuen laburpena jasotzen duena. Doako banaketa zabala egiten da, eta DEPSren web orritik ere deskargatu daiteke.
- DEPStik egiten diren inkesten inguruko lanari buruzko *Documents de travail* izenekoak. Doako banaketa zabala egiten da, eta DEPSren web orritik ere deskargatu daiteke.

3. Espainia

Kulturaren arlo ezberdinetan informazio estatistikoa biltzeko eta sistematizatzeko dauden tradizioen inguruan egituratzen da Espainiako kultur estatistikaren sistema. Sistema horren ezaugarri nagusietako bat da eskuragarri dagoen informazioa oso ezberdina dela sektore izan ala bestea izan. Horrela, liburutegien gainean oso aspaldiko datuak ditu sistemak (1959. urtetik biltzen

1. Urtekaria *Documentation française* izenekoetik saltzen da, 20 euroko prezioan (2006ko edizioa)

dira), baina ohiturei eta kontsumoari buruzko estatistikak askoz ere berriagoak dira.

Espainiako kultur estatistiken sistema aztertzeko, bi erreferente hartu behar ditugu kontuan: batetik, *2005-2008 aldirako Plan Estatistiko Nazionalaren* proposamena (1989ko maiatzaren 9an 12/1989 Legea onartu zenetik Plan Estatistiko Nazional bat dago Espainian); eta, bestetik, Kultura Ministerioa estatistiken arloan egiten ari den lana. Bi erakunde horiek elkarrekin lan egiten dute, eta elkar elikatzen dituzte beren informazio-sistemak.

2005-2008 aldirako Plan Estatistiko Nazionalak kulturarekin lotutako **bederatzi eragiketa estatistiko** hartzen ditu barruan, eta horien garapena EINen (Estatistikako Institutu Nazionalaren) eta Kultura Ministerioaren mende dago. Eragiketa estatistiko horiek ondoko hauek dira:

Eragiketaren zenbakia	Izena	Noren mende dagoen	
		INE	MCU
4271	ISBN duten liburuen argitalpena		◆
4272	Liburuen argitalpen-ekoizpena	◆	
4273	Liburutegiak	◆	
4274	Museoak eta bildumak		◆
4275	Agiritegiak		◆
4276	ISMN duen musikaren argitalpena Espainian		◆
4277	Musika- eta dantza-baliabideen datu-baseen us-tiopen estatistikoa (erakundeak, profesionalak eta estreinaldiak).	◆	
4278	Zinematografia: ekoizpena, emanaldia, banaketa eta sustapena.		◆
4284	Kulturaren arloko finantzazioaren eta gastu publikoaren estatistika.		◆

Espainian dauden tradizioen arabera egiten ziren inkesta, azterlan eta estatistika sektorialak alde batera utzi, eta informazioa geroz eta gehiago sistematizatzen ari da orain, koherentzia zaintzeko eta Espainiako estatistika kulturalan hutsunerik ez egoteko asmoz. Eman den urrats horri dagokionez, azpimarragarria da EINen eta Autonomia Erkidegoetako estatistika-zerbitzuen arteko harremana estutu egin dela, sinatu diren lankidetzaz hitzarmenei esker, eta

baliabideak arrazionalizatu egin direla, Autor Fundazioarekin *Kultur kontsumoari eta ohiturei buruzko inkesta* bat egiteko sinatu dena bezalako hitzarmenei esker ere bai.

2006. urtean Espainiako estatistika-sistemak izan duen berrikuntza nagusia *Kultur estatistiken urtekaria 2005* argitaratu izana da. Espainiako kultur estatistiken inguruko informazioa sistematizatzeko eta jendaurrean agerrarazteko saialdirik garrantzitsuena da, eta arreta berezia eskaini zaio datuak Autonomia Erkidegoen arabera banatzeari. Kultur arloko emaitza estatistiko garrantzitsuenen aukeraketa bat da, eskura dauden iturri estatistikoetatik abiatuta egina, eta 2000-2004 bosturtekorako adierazle nagusiak jasotzen dituen.

Lan horrek jarraipena ematen dio *Kulturaren zifrak Espainian. Estatistikak eta adierazleak. 2002* argitalpenean egin zen lanari. Bertan adierazle batzuk eta metodologia bat ezarri ziren. Abiapuntutzat hartu zen eremu sektoriala zehazteko, *LEG-Culture* taldeak 1997. urtetik Eurostaten garatu zituen lan metodologikoak hartu ziren kontuan. Espainiak aktiboki parte hartu zuen lan horietan. Kontuan hartu beharreko sektore kulturalak mugatzeko eredu gisa Esparru europarra hartu bada ere, Espainian zenbait ezberdintasun egin dira. Kontuan hartzeari edo ez hartzeari dagokionez, herrialdeen arteko adostasuna lortu ez duten sektore horietan eman dira batez ere ezberdintasun horiek.

Horrela, *Kultur estatistiken urtekaria 2005* izeneko argitalpenean ondorengo sektore hauetako informazioa hartu da kontuan:

Ondasun kulturalak

Ondarea

Museoak

Agiritegiak

Liburutegiak

Liburuak eta aldizkako argitalpenak

Liburua

Aldizkako argitalpenak

Arte plastikoak

Arte eszenikoak eta musikalak

Antzerkia

Dantza

Lirika

Musika

Ikus-entzunezkoak

Zinema

Bideoa

Musika grabatua

Telebista

Irratia

Azterlanaren eremutik kanpo utzi dira arkitektura, ikuskizunaren zenbait arte (zirkua, txotxongiloak, zezenketak, eta abar) eta kulturarekiko zeharkako harremana duten beste zenbait alderdi (hizkuntza, publizitatea, kirolak eta jo-koak, ingurumena eta izadia, eta informatika).

Urtekaria bi bloke zabaletan egituratzen da: lehenengoak sektore kulturalak, enplegua eta enpresak, finantzazio publiko eta pribatua, jabetza intelektuala, kanpoko merkataritza, turismoa, irakaskuntza eta ohitura kulturalak ukitzen dituzten balioespenak erakusten ditu. Bigarrenak, berriz, horietako batzuei buruzko informazio zehatzagoa eskaintzen du: ondarea, museoak, agiritegiak, liburutegiak, liburua, arte eszenikoak, musika, zinema eta bideoa.

LEG-Culture eredu garrantzitsua izan da baita ere *Espainiako kultur ohiturei eta praktikei buruzko 2002-2003ko inkesta* diseinatzerakoan. Izan ere, parte-hartze kulturalari buruzko *Task Force* lan-taldeak (Ministerioak parte hartu zuen *Task Force* horretan) lurraldeen arteko konparazioak egitea ahalbidetzen duten erreferentziako puntuak sortu zituen.

Emaitzen komunikazioa

Emaitzen komunikazioari dagokionez, bereizketa bat egin behar dugu Espainiako egoera kulturalaren ikuspegi orokor bat eskaintzen duten horien argitalpenaren eta eremu edo sektore jakinek egindako inkestei eta estatistikei buruzko horien artean. Noski, azken horiek lehenengoengandik elikatzen dira. Oro har, erreferente nagusiak ondorengo hauek dira:

- *Kultur estatistiken urtekaria*. Lehenengo argitalpenak 2005eko estatistikak jaso zituen, baina urtero berritzen joateko borondatea dago. Azkeneko urteari buruzko datu eguneratuak eskaintzen ditu.

- *Kulturaren zifrak Espainian*. Urtekariaren aurrekari hurbilena da. Azkene-ko edizioa 2002. urtekoa da.

Aldizka argitaratzen diren sektore edo eremu jakinetako inkesten eta estatistiken emaitzak ondorengo hauek dira:

- *Museoen eta bilduma museografikoen estatistika*
- *Zinematografiaren estatistika*
- *ISBN duten liburuen Espainiako argitalpenen estatistika*
- *Espainiako Liburutegi Publikoen estatistika*
- *ISMN duen musikaren Espainiako argitalpenen estatistika*
- *Kultur ohiturei eta praktikei buruzko inkesta 2002-2003*.

Horiek guztiak paperean argitaratzen dira, eta Kultura Ministerioaren web orrian eskuratu daitezke.

4. Katalunia

Kataluniako kultur estatistiken aurrekari garrantzitsua 1991. urtean egin zen eta zati handi batean oraindik ere indarrean dagoen *Pla Marc d'Estadistiques Culturals* (PMEC) izenekoak da. **PMECren helburua** zen sektore kultural guztientzako proposamen estatistiko bat zehaztea, informazioaren egoera aztertuz eta jarduketa-estrategia bat planteatuz. UNESCOk emandako gomendioetan oinarritutako agiri hori ez da erabat garatu, nahiz eta oso erabilia izan den, lan-eredu gisa, Kataluniako kultur estatistikak eraikitzerakoan.

Sistemaren garapena ezberdina izan da, sektore eta jarduera kulturalen araberakoa, eta, horren ondorioz, gaur egun informazio oso aberatsa dago zenbait alderdiren inguruan, baina ia ez dago informaziorik beste zenbait alderdiren inguruan. Egungo egoera birbideratzeko xedez, *Pla Estadístic de Catalunya 2006-2009* (Kataluniako Plan Estatistikoa 2006-2009) izenekoak oraindik nahikoa informazioa ez duten eremuetako informazio-bilketa garatzea planteatzen du. Ondoren agertzen den taulak Kataluniako egungo estatistika-sisteman aurkitzen dugun informazioaren sailkapena nahiz sistema berriaren proposamena erakusten ditu.

Taulan ikusi daitekeen bezala, Kataluniako kultur estatistiken sistema, PMEC izenekoan oinarritu bada ere, ez da garatu benetan sistema bakar eta homogeneoa izango balitz bezala. Bere ezaugarri nagusia da administrazioen arteko koordinazioa behar dela estatistikak egiterakoan, eta hori hitzarmenen bi-

Eremua	Egungo informazioa	Kataluniako Plan Estatistikoa 2006-2009				
		Kultura Saila	Hezkuntza Saila	IDESCAT	EIN	Mota
Agiritegiak	◆	◆				F
Liburutegiak	◆			◆	◆	F
Museoak	◆	◆				B
Ondare arkitektonikoa eta arkeologikoa	◆	◆				F
Ikus-arteak eta arte plastikoak	◆	◆				F
Zinema	◆	◆				F
Liburua	◆	◆				F
Komunikabideak	◆	◆				G
Antzerkia eta dantza	◆	◆				F
Hizkuntza	◆			◆		F
Finantzazioa	◆					
Industria kulturalak	◆					
Kontsumo kulturala	◆	◆		◆		F
Musika		◆				B
Kulturaren arloko irakaskuntza eta prestakuntza		◆	◆			G
Kulturaren serie historikoak		◆				B
Ekipamendu kulturalak		◆				B

F: Finkatuta B: Berria G: Garapenean.

dez lortzen dela. Administrazio horiek ondoko hauek dira: Kultura Saila, Kataluniako Estatistika Institutua (IDESCAT), Estatistikako Institutu Nazionala (EIN) eta Hezkuntza Saila.

Eragile-aniztasun horren ondorioz, sistema finkatuta dago jadanik zenbait eremutan, garatzen ari da beste zenbait eremutan, eta hasiberria da planeko eremu berrienetan. Hala eta guztiz ere, ezaugarrien arabera, dagokien administrazioaren arabera eta egungo garapen-egoeraren arabera multzokatu daitezkeen informazio-blokeak identifikatu daitezke:

- **Liburutegiak:** Katalunian, liburutegiei buruzko estatistikak IDESCATEk egiten ditu 1986. urtetik, eta horien maiztasuna bi urtez behingoa da. Liburutegiei buruzko informazioa ISO (*International Organization for Standardization*) 2789 Arauak ematen dituen definizioei jarraiki eskuratzen da. Arau horrek, 2000. urtetik aurrera, UNESCOk erabiltzen zituen eta batzar orokorrak 1970. urteko azaroan onartu zituen definizioen gomendioak aldatu zituen. Hori horrela, galdetegia nabarmen aldatu zen aurreko urteetako galdetegiari zegokionez, baina horrek ez zuen eragotzi 1992. urtean hasitako estatistika-serieekin jarraitu ahal izatea.
- **Kulturaren sektoreetako eta eremuetako estatistikak:** Kultura Saila da galdetegien bidez sektore bakoitzeko ekipamenduari, erabiltzaileei eta beste ezaugarriei buruzko informazioa biltzeaz arduratzen dena. Hemen musikaren inguruan dagoen informazio-eskasia aipatu behar da.
 - ♦ **Agiritegiak;** Agiritegietako datu estatistikoak Saileko Kabinete Teknikotik prestatzen dira, agiritegietan erantzuten dituzten galdetegietan oinarrituta. 2000. urtetik, Generalitatek bere sailei, lurralde-zerbitzuei, erakunde autonomoei eta enpresa publikoei buruz dituen administrazio-agiritegi orokorrak ere sartzen dira.
 - ♦ **Museoak;** museoiei buruzko informazioa inbentario-modukoa da. Horien ezaugarriei buruzko oso informazio gutxi biltzen du oraindik ere. Kultura Sailaren datu administratiboetan eta sailak berak urtero argitaratzen duen *Museus i col·leccions a Catalunya* Kataluniako museoen direktorioan oinarrituta prestatzen da.
 - ♦ **Ondare arkitektoniko eta arkeologikoa;** Kultura Sailan dauden datu-base administratiboak landuta prestatzen da estatistika hau. Inbentariatuta dauden aztarnategi arkeologikoak egun mapa arkeologikoa eginda duten 40 eskualdeetakoak dira. Barcelonés eta Tarragona hiria oraindik inbentariatu gabe daude.
 - ♦ **Arte plastikoak;** Estatistikek arte-galeriei buruzko informazioa bakarrik hartzen dute barruan. Kataluniako galeria guztiei egin zaien inkesta batean oinarritzen dira.
 - ♦ **Zinema;** Kultura Saileko datu-base administratiboetatik abiatuta prestatzen da estatistika. Datu guztiak dira pantaila bat edo gehiago dituzten eta jardunean ari diren, hots, urtean zehar zine-emanaldiak programatu dituzten zine-aretoei buruzkoak.

- ♦ **Liburua;** Liburuei buruzko datuak eskuratzeko iturri bat baino gehiago erabiltzen dira, aztergaia zein den kontuan izanik:
 - **Liburuaren sektoreko eragileak.** Gremi d'Editors de Catalunya, egoitza Katalunian duen Associació d'Editors en Llengua Catalana, Gremi de Distribuïdors de Catalunya eta Gremi de Llibreters de Catalunya elkarteetako kide diren enpresak.
 - **ISBNren araberrako argitalpena.** *Espainiako liburu-argitalpenen egoera.* Azterlan horrek ISBNren Espainiako Agentziak dituen datuak aztertzen ditu, ISBN zenbakia (*International Standard Book Number*) eskatzen duten eragile espainiarrek editatutako argitalpenei buruzko informazioa bilduz.
 - **Liburuaren barruko merkatua.** *Liburuaren barruko merkatua Espainian,* Espainiako Editoreen Elkartearen Federazioaren enkarguz egina.
 - **Liburuaren kanpoko merkatua.** Liburuaren kanpoko merkataritzari buruzko datuak Kataluniako Liburu Ganberak eta Liburu Ganberen Espainiako Federazioak prestatu dituzte.
- ♦ **Prentsa;** Prentsari buruzko datuak Institut Català d'Indústries Culturals institutuak prestatzen ditu, berak dituen iturrietan eta Oficina de Justificación de la Difusión (OJD) bulegoak emandako datuetan oinarrituta.
- ♦ **Antzerkia eta dantza;** Estatistika-datu horiek Sailak Kataluniako antzerki eta dantza profesionalaren inguruko enpresen eta ekoizleen artean nahiz antzokietan banatzen dituen galdetegien erantzunetatik eskuratzen dira. Urtero egiten da.
- ♦ **Industria kulturalak;** Industria kulturaleri buruzko informazioa Kultura Sailak prestatzen du. Atal honetan hiru aldagai daude: langile-kopurua, ekoizpenaren balioa eta balio erantsi gordina.
- **Hizkuntza;** Katalanaren ezagutzari buruzko datuen informazio-iturria IDESCATen artxiboa da. Artxibo hori biztanleen erroldak eta zentsuak ematen duen informazioan oinarritzen da.
- **Finantzazioa;** Kultura Sailak kulturaren egiten duen gastuari buruzko aurrekontu-informazioa kitatutako urteko aurrekontuetatik eskuratzen da. Diputazio probintzialen, eskualdeko kontseiluen eta udalen estatistika Kultura Sailak egiten duen *Kataluniako Tokiko Administrazioaren gastua kulturaren* agiritik abiatuta prestatzen da. Udalek, eskualdeko kontseiluek eta diputazio probintzialek urtero erantzuten diote inkestari, eta parte-hartze horri

esker eskuratzen da informazioa. Errolda 5.000 biztanle baino gehiagoko toki erakundeek, biztanleria txikiagoa izanda ere eskualdeko hiriburu direnek, eskualdeko kontseiluek eta diputazio probintzialek osatzen dute. Kontuan hartzen da, baita ere, 2.000 biztanle baino gehiago eta 5.000 baino gutxiago dituzten udalerrien lagin bat. Informazio-iturri guztiek gastu fin-
katuari buruzko datuak ematen dituzte.

- **Kontsumoa eta ohiturak**; Kultura Sailaren eta IDESCATen artean egiten da estatistika, Eurostatek gomendatzen duen ikerketa-metodologiaren ezaugarri teknikoan arabera, datu horiek Europako beste herrialdeen datuekin alderatu ahal izatea bermatzeko xedez. 2001eko estatistikak Kultura Sailak ordura arte kontsumo kulturalari buruz egin zituen azterlanen (1985, 1991, 1996) irismena areagotu zuen; izan ere, Europako Batasuneko herrialdeekiko alderagarriak ziren datu-taula berriak txertatzea eta Kataluniako gizarte- eta lurralde-segmentuen bereizketa handiagoa egitea ahalbidetu zituen. Azterlanaren unibertsoa Katalunian bizi den eta gutxienez 15 urte dituen biztanleria da.

Ikus daitekeen bezala, informazioaren kalitatea eta kopurua oso ezberdinak dira, eta baita informazio horren iturriak eta jatorriak ere. Azken buruan, aniztasun hori da Kataluniako egungo estatistika-sistema kulturalaren ezaugarri nagusia. Estatistika Plan berriak informazio-hutsune handiak estaltzeko aukera emango digu, nahiz eta ez duen konponduko kulturarekin lotutako informazio guztia lantzeko eredu bakarra ez egoteak suposatzen duen arazoa. Eredu bakar horrek irizpideak bateratu beharko lituzke, eta koherentzia emango lioke egun esku artean dugun eta Planaren arabera bilduko den informazio guztiari.

Emaitzen komunikazioa

Emaitzen komunikazioari dagokionez, bereizi egin behar ditugu, batetik, eremu edo sektore jakinek egindako inkesten eta estatistiken argitalpena eta, bestetik, Kataluniaren egoera kulturalaren ikuspegi orokor bat eskaintzen duten horien argitalpena. Bigarren helburu horren inguruan biltzen dira ondorengo argitalpen hauek:

- *Estadístiques Culturals de Catalunya*: 2006. urtean zortzigarren edizioa argitaratu zen, eta Kultura Sailak *Kataluniako Estatistika Planari* buruzko uztailaren 15eko 9/1996 Legearen esparruan prestatu duen datu estatistiko kulturalen aukeraketa jasotzen du. Urtero argitaratzen da, eta azkeneko urteari buruzko datu eguneratuak eskaintzen ditu.

- *Indicadors i Estadístiques culturals a Catalunya*. Kataluniako kultur estatistiken datu nagusiak laburbiltzen dituen argitalpena da. Berrikuntza gisa agertu da 2006ko ekainean.

Aldizka argitaratzen diren sektore edo eremu jakinetako inkesten eta estatistiken emaitzak ondorengo hauek dira:

- *Estadística de bibliotecas. Características Básicas*. Kataluniako liburutegiei buruzko estatistikak dira, 1992. urtetik aurrerakoak. Kataluniako Estatistika Institutuaren (IDESCAT) eragiketarik luzeenetako bat da. Bi urtez behin argitaratzen da.
- *Kontsumo eta ohitura kulturei buruzko inkesta*; 5 urtean behin egiten den inkestaren emaitzak erakusten ditu.
- *Kataluniako toki administrazioak kulturaren egiten duen gastuaren estatistika*. Urtero udalen eta udal erakundearen artean egiten den inkestaren emaitzak erakusten ditu.

Horiek guztiak paperean argitaratzen dira, eta Kultura Sailaren web orrian eskuratu daitezke.

IV.Zeharkako azterketa

Zeharkako azterketari esker orain arte deskribatu diren estatistika-sistemen arteko azterketa alderatua egin daiteke. Xedea da, sistemen arteko alderaketan oinarrituz, sistema horien ezaugarriei buruzko xehetasunak ematen dituzten elementuak trazatzea. Horretarako, sistema bakoitzari buruzko informazioa biltzen duten konparazio-taulak zehaztu dira. Taula horien azterketak Euskal Herrirako estatistika-esparru bat eraikitzeke baliagarriak izango diren zenbait ondorio ekarriko ditu.

Sistemak elkar alderatuz aztertzen dira, eta hiru alderdi hauetan jartzen da arreta: **sistemen deskribapen-elementuak; sistema bakoitzak informazioa antolatzeke duen modua; eta, azkenik, emaitzak argitaratzeko sistemak.**

1. Deskribapen-elementuak

Atributua	Sistema	UNESCO	EUROPAKO BATASUNA	QUEBEC	FRANTZIA	ESPAINIA	KATALUNIA
Deskribapena		UNESCOk, 1986. urtean, <i>Kultur Estatistiken garapenerako esparrua</i> egin zuen. Hala ere, esparru hori ez da garatu berrez estatistika-sistema bezala.	Eurostaten (Europako Batasunerako eta kide diren estatuetarako estatistika-informazioarako zerbitzua) barruan, 1997. urtean LEG (<i>Leadership Group on Cultural Statistics</i>) taldea sortu zen. Talde honek EBn eredugarria izan den kultur adierazleen proposamen bat egin zuen.	Quebeceko kultur estatistiken sistema Quebeceko Kulturaren eta Komunikazioen Behatokiak egiten duen lanaren inguruan egituratzen da.	Frantziako estatistika-sistema aztergai diren eremuen egoera ebaluatzeko xedez aldizka egiten diren inkestetan oinarrituta egiten da.	Espainiako kultur estatistiken sistema EINEk (Estatistikako Institutu Nazionala) eta Kultura Ministerioak egiten dituzten estatistikatan oinarritzen da. <i>2005-2008rako Estatistika Plan Nazionalak</i> eragiketa estatistikoak aurreikusten ditu kulturaren arloan.	Kataluniako kultur estatistiken sistema aztergai den sektorearen edo arloaren arabera inkestatan eta hurbilketan oinarritzen da. Urtero ekoizpen estatistiko osoaren hautaketa bat argitaratzen da, <i>Kataluniako Kultur Estatistiken urtekarian</i> .
Esparruaren eraikuntzarako nazioarteko ereduak			Eredu nagusiak UNESCOren proposamena eta herrialde europar ezberdinetako esperientzien azterketa dira.	UNESCOren proposamena da eredu nagusia, <i>Éléments d'un cadre conceptuel des statistiques de la culture et des communications</i> delakoan ikusi daitekeen bezala.	Frantziako estatistika-koadroa Eurostatenaren aurrekoa da, eta UNESCOren urte berekoa; beraz, ez ditu horiek eredu. Bere erreferenteak dira: <i>Cadre pour les statistiques culturelles</i> (1986) eta <i>Nomenclature d'activités culturelles</i> (1989).	Espainiako kultur estatistikak eraikitzeko eredu nagusia Eurostaten proposamena da.	Kataluniako kultur estatistiken erreferente nagusi den <i>Pla Marc d'Estadístiques culturals</i> UNESCOren proposamenaren oinarrituta eraiki zen, Frantziako esperientzia aztertu ondoren.
Erakunde arduradunak		UNESCOren Estatistika Institutua	Eurostat eta EBko kide diren herrialdeak	Quebeceko kulturaren eta komunikazioen behatokia.	<i>Département des Études, de la Prospective et des statistiques</i> (DEPS). <i>Institut national de la statistique et des études économiques</i> (INSE).	EIN, Kultura Ministerioa eta autonomia erkidegoen estatistika-zerbitzuak	Kultura Saila, Hezkuntza Saila, IDESCAT, EIN

Ondorioak

- **Kultur estatistiken nazioarteko homologazioak duen zailtasuna**

Sei sistema edo proposamenen azterketa honek herrialde eta lurralde-errealitate ezberdinen artean konparatu daitezkeen kultur estatistikak sortzeko dagoen zailtasuna azpimarratzen du. UNESCOk eta Eurostatek proposatutako informazioa homogeneizatzeko ahaleginak oinarritzat eta eredutzat hartu dira esparru berriak eraikitzerakoan, baina ez dute konpondu sistemen eta horiek biltzen dituzten informazioen arteko ezberdintasunaren arazoa. Hala ere, azken urteetan aurrerapauso handiak eman dira, eta pixkanaka bada ere, bateratzerantz egiten ari direla esan daiteke.

- **Eurostaten *LEG-Culture* lan-taldea da eredu nagusia**

Nazioarteko kultur estatistikentzat ereduzkoa izango den sistema bat sortzeko lehenengo ahalegina UNESCOk egin zuen 1986. urtean, *Kultur Estatistiketarako Esparruarekin*. Kultur estatistiken eremuan egin zuen ekarpena gehiago baloratu behar da erreferente kontzeptual gisa jardunean dagoen sistema baten esperientzia gisa baino; izan ere, *Kulturaren munduko xostenean* argitaratzen diren UNESCOren kultur estatistikak ez dira esparru horren jarraibideetan oinarritzen. Hala ere, UNESCOren proposamena izan zen abiapuntu garrantzitsuena Eurostaten *LEG-Culture* taldearen lanentzat. LEGen ondorioak kultur estatistiken esparruak eraikitzeko erreferente nagusi bilakatu dira, bai Europan eta baita Europatik kanpo ere. Lehendik zeuden estatistika-esparruak –Frantziakoa edo Kataluniakoa– eta jardunean zeuden sistemak –EINen kultur ohiturei buruzko inkesta– LEG taldearen gomendioetara egokitzen joan dira, geroz eta konparagarriagoak diren sistemetarantz bat eginez. Aipagarria da Frantzia izatea, hain zuzen ere, LEG taldearen lan gehienak zuzendu zituen, lurraldeen arteko konparazioak ahalbidetuko dituen sistema bat lortzeko asmoz.

- **Esparru bakarraren garrantzia: sistema osatuak edo garatzen ari diren sistemak**

Aztertu diren sei sistemek abiapuntu edo inflexio-puntu ezberdinak dituzte, eta, horien arabera, osatuta dauden sistema gisa edo garatzen ari diren sistema gisa definitzen dira. Bai UNESCOren kasuan eta baita Eurostaten kasuan ere, sistema gisa baino, interesgarriagoa da nazioarteko erreferente gisa betetzen

duen funtzioa eta, ondorioz, herrialdeen artean alderagarria den kultur garapena neurtzeko sistema bat sortzeko borondatea. Horregatik, horien proposamenak **sistema osatuak** sortzeko ahalegin gisa ulertu beharra dago. Osatuak dira, baita ere, Quebecoko eta Frantziako sistemak. Bi kasuetan, beren estatistika-sistemak sortzeko borondatetik abiatzen dira, behatoki baten eta departamentu indartsu baten mende daude hurrenez hurren, eta estatistikak *ad-hoc* sortutako estatistika-esparru batekiko koherentzian egiten dira. Espainiaren eta Kataluniaren kasua ezberdina da, eta **garatzen ari diren sistema** gisa definitu daitezke. Espainiako sisteman bat egiten dute zenbait sektoreren eta zerbitzuren bilakaera ezagutzeko beharrari erantzuten dieten tradizio estatistiko ezberdinek. Kataluniaren kasua antzekoa da; bere egunean *Pla Marc d'Estadístiques Culturals* egin bazuen ere, egun garatu gabeko atal asko ditu oraindik ere.

• Informazio-bilketan koordinatu beharra

Lurralde batean kultur estatistiken sistema bat zehaztu ahal izateko, ezinbestekoa da informazioaren bilketan eta tratamenduan parte hartzen duten eragile guztien arteko lan bateratu eta koordinatua lortzea. Sistema osoaz arduratzeko nahikoa baliabide dituen behatoki bat edo departamentu bat dagoenean sistema osatuagoa geratzen dela erakutsi da. Horrek ez du baztertzen, kasu guztietan bezala, estatistika institutu estatalekiko, nazionalekiko eta abarrekiko lankidetzahitzarmenak sinatzea. Hitzarmen horiek positiboak dira: batetik, ahaleginak bikoiztea ekiditen delako; eta, bestetik, alde guztien lana hobetu dezaketen trukaketarako eta hausnarketarako mekanismoak ezartzen direlako.

2. Informazioaren antolaketa

Sistema Atributua	UNESCO	EUROPAKO BATASUNA	QUEBEC	FRANTZIA	ESPAINIA	KATALUNIA
Informazioa sail- katzeko erabiltzen diren eremuak edo mailak	<p>SEKTOREAK</p> <p>0. Ondare kulturala</p> <p>1. Inprimatutako materialak eta literatura</p> <p>2. Musika</p> <p>3. Arte eszenikoak</p> <p>4. Arte plastikoak eta ikus-arteak</p> <p>5. Zinema</p> <p>6. Irratia eta telebista</p> <p>7. Jarduera soziokulturalak</p> <p>8. Jokoak eta kirolak</p> <p>9. Izadia eta ingurumena</p> <p>Funtzioak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sorkuntza/ekoizpena • Hedapena/komunikazioa/banaketatransmisioa • Kontsumoa/harrera • Zainketa/kontserbazioa/erregistroa/babesa • Parte-hartzea 	<p>SEKTOREAK</p> <p>1) Ondare kulturala</p> <p>1.1. Monumentu historikoak</p> <p>1.2. Museoak</p> <p>1.3. Gune arkeologikoak</p> <p>1.4. Beste ondasun-moduak.</p> <p>2) Agiritegiak</p> <p>3) Liburutegiak</p> <p>4) Liburua eta prentsa</p> <p>4.1. Liburua</p> <p>4.2. Prentsa</p> <p>5) Arte plastikoak</p> <p>5.1. Arte plastikoak (adibidez, diseinua)</p> <p>5.2. Argazkigintza</p> <p>5.3. Diziplina anitzekoak</p> <p>6) Arkitektura</p> <p>7) Arte eszenikoak</p> <p>7.1. Musika</p> <p>7.2. Dantza</p> <p>7.3. Antzerki musikala</p> <p>7.4. Antzerkia</p> <p>7.5. Diziplina anitzekoak</p> <p>7.6. Bestelakoak (zirkua, mimoa, eta abar)</p> <p>8) Entzunezkoak eta ikus-entzunezkoak / multimedia</p> <p>8.1. Zinema</p> <p>8.2. Irratia</p> <p>8.3. Telebista</p> <p>8.4. Bideoa</p> <p>8.5. Soinu-erregistroak</p> <p>8.6. Multimedia</p> <p>Funtzioak:</p> <p>1. Kontserbazioa</p> <p>2. Sorkuntza</p> <p>3. Ekoizpena</p> <p>4. Hedapena</p> <p>5. Merkataritza / salmentak</p> <p>6. Gaikuntza / hezkuntza</p>	<p>SEKTOREAK</p> <p>1. Ikus-arteak eta ofizio artistikoak</p> <p>1.1. Ikus-arteetan artistak</p> <p>1.2. Artista-zentroak</p> <p>1.3. Artelanen erosketa</p> <p>2. Arte eszenikoak</p> <p>2.1. Ikuskizunetara joatearen maiztasuna</p> <p>2.2. Dantza</p> <p>2.3. Arte eszenikoaren hedapena</p> <p>2.4. Musika</p> <p>2.5. Antzerkia</p> <p>3. Ondarea, museoak eta agiritegiak</p> <p>3.1. Museoak</p> <p>4. Liburutegiak</p> <p>4.1. Liburutegi publikoak</p> <p>4.2. Unibertitateetako liburutegiak</p> <p>5. Liburua</p> <p>6. Aldizkako argitalpenak</p> <p>6.1. Prentsa kulturalaren argitaratzaileak</p> <p>6.2. Argitalpen kolektiboak (erakundeak)</p> <p>7. Soinu-erregistroak</p> <p>8. Zinema eta ikus-entzunezkoak</p> <p>8.1. Filmak</p> <p>9. Irratia eta telebista</p> <p>9.1. Telebista pribatua</p> <p>9.2. Telebista publikoa</p> <p>9.3. Telebista espezializatua eta <i>pay-per-view</i></p> <p>9.4. Irrati pribatua</p> <p>9.5. Irrati publikoa</p> <p>9.6. Kable bidezko irrati eta telebisten banatzaileak eta bestelako banatzaileak.</p> <p>9.7. Telebistaren ikusleak</p> <p>9.8. Irratiaren entzuleak</p> <p>10. Multimedia</p> <p>Zeharka</p> <p>Kulturarekin eta komunikazioekin lotutako lanbideak:</p> <p>Norbanakoak eta etxeak: Kultur ohiturak / Etxeetako gastua / Aisialdiaren erabilera / Kulturaren egiten den gastu publikoa</p>	<p>SEKTOREAK</p> <p>Ondarea eta arkitektura</p> <p>Arkeologia</p> <p>Museoak</p> <p>Arte plastikoak</p> <p>Agiritegiak</p> <p>Liburutegiak</p> <p>Liburua</p> <p>Prentsa</p> <p>Fonogramak</p> <p>Lirika, musika eta dantza</p> <p>Antzerkia eta ikuskizunak</p> <p>Zinema</p> <p>Bideoa</p> <p>Zeharka</p> <p>Irakaskuntza artistikoa</p> <p>Egile-eskubideak eta antzekoak</p> <p>Azpiegiturak eskualdeka</p> <p>Kulturaren finantzazioa</p> <p>Kulturarekin lotutako lanbideak eta enplegua</p> <p>Kanpoko merkataritza</p>	<p>SEKTOREAK</p> <p>Ondasun kulturalak</p> <p>Ondarea</p> <p>Museoak</p> <p>Agiritegiak</p> <p>Liburutegiak</p> <p>Liburuak eta aldizkako argitalpenak</p> <p>Liburua</p> <p>Aldizkako argitalpenak</p> <p>Arte plastikoak</p> <p>Arte eszenikoak eta musikalak</p> <p>Antzerkia</p> <p>Dantza</p> <p>Lirika</p> <p>Musika</p> <p>Ikus-entzunezkoak</p> <p>Zinema</p> <p>Bideoa</p> <p>Musika grabatua</p> <p>Telebista</p> <p>Irratia</p> <p>Zeharka</p> <p>Enplegua eta kulturarekin lotutako enpresak</p> <p>Finantzazio publikoa eta pribatua</p> <p>Jabetza intelektuala</p> <p>Kanpoko merkataritza</p> <p>Turismoa</p> <p>Irakaskuntzak</p> <p>Kultur ohiturak</p> <p>Eurostaten aldean, azterlanaren eremutik kanpo utzi dira arkitektura, ikuskizunaren zenbait arte (zirkua, txotxongiloak, zezenketak, eta abar) eta kulturarekiko zeharkako harremana duten beste zenbait alderdi (hizkuntza, publizitatea, kirolak eta jokoak, ingurumena eta izadia, eta informatika). EBren esparruan ez bezala, barruan hartu dira kultur produktuei lotutako erreproduzio-jarduerak (arte grafikoa, soinu-erregistroen erreproduzioa, eta abar) eta musika-tresnen fabrikazioa. Administrazio-jarduerari dagokionez, funtzio hori finantzazio publikoaren neurketan sartu da.</p>	<p>SEKTOREAK</p> <p>Agiritegiak</p> <p>Liburutegiak</p> <p>Museoak</p> <p>Ondare arkitektonikoa eta arkeologikoa</p> <p>Arte plastikoak</p> <p>Zinema</p> <p>Liburua</p> <p>Prentsa</p> <p>Antzerkia eta dantza</p> <p>Hizkuntza</p> <p>Zeharka</p> <p>Finantzazioa</p> <p>Industria kulturalak</p> <p>Kultur ohiturak eta kontsumoa</p>
	Ekarpen nagusiak eta berrikuntza kontzeptualak		<p>UNESCORI dagokionez:</p> <p>Kontuan hartzen dira: arkitektura, komunikabide berriak, arte plastikoak (ikus-artearen kategoria bakarra).</p> <p>Ez dira kontuan hartzen: kirolak, ingurumena, publizitatea, hizkuntzak eta jokoak.</p>		DEPS izan zen <i>LEG-Culture</i> taldearen enplegu kulturalari buruzko <i>Task Force</i> 2 lan-taldearen zuzendari.	

Ondorioak

- **Sektoreek egituratzen dute informazio estatistikoa**

Kasu guztietan kulturaren eta komunikazioen sektoreen inguruko informazioarentzako egitura bat proposatzen da. Hala ere, zenbait ezberdintasun daude izendapenei eta azpi-atalen kokapenari dagokienez. Bai UNESCOren proposamenak eta baita Eurostatenak ere, hainbat funtzio gurutzatzea aurreikusten dute, aztertutako sektore guztientzat, horiei guztiei buruzko ikuspegi orokor bat lortzeko. Bi kasuetan sarrera bikoitzeko matrizeak eraikitzea proposatzen da; horietan, ardatz nagusia neurri sektorial bakoitzetik abiatuta egituratzen da, eta, bigarren mailakoa, berriz, aztertutako sektorearen ezaugarri diren funtzioetatik abiatuta. Egia bada ere proposamen horiek errealitate kulturalaren ikuspegi osatuagoa eta zehaztuagoa eskaintzen dutela, garatzen ari diren lau sistemen esperientziak benetako joera bestelakoa dela erakusten digu. Zeharkako alderdiak sektoreka egituratuta egon daitezke ala ez, banaketa horrek duen interesaren arabera. Joera honek aztergaia (irakaskuntza, merkataritza, enplegua, turismoa, ohiturak, eta abar) nabarmentzen du, eta informazioa sektoreka eman dezakeen arren, arkitektura hain da malgua ezin dela UNESCOk eta Eurostatek proposatutako sarrera bikoitzeko matrizearekin nahastu. Izan ere, *LEGen Task Force 1* lan-taldeak proposatutako sailkapenari, Eurostaten sailkapenari, *Task Force 2, 3* eta *4* lan-taldeen lana gehitu behar diogu; horiek enpleguaren, finantzazioaren eta gastuen nahiz kultur praktiken inguruko zeharkako elementuak aipatzen dituzte eta.

- **Zenbait sektore kontuan hartzearen edo ez hartzearen inguruko eztabaida, erabaki gabeko eztabaida**

Estatistika-esparruen proposamenak eta sistemak ez dira ados jartzen zenbait sektore kontuan hartzeari edo ez hartzeari dagokionez. UNESCOk kontuan hartzen ditu kirolak, ingurumena, publizitatea, hizkuntzak eta jokia; eremu horiek kanpoan uzten ditu, berriz, Eurostatek. Aitzitik, Eurostatek bai hartzen dituela kontuan arkitektura, komunikabide berriak eta arte plastikoak, ikus-artearen kategoria bakar gisa. Aldaketa horiek errealitate kulturalera hurbiltzeko eta kultura kontzeptua ulertzeko modu desberdinei erantzuten diete. LEG taldearen barruan, *Task Force 1* lan-taldean hain zuzen ere, parte-hartzaileen artean polarizazio gehien sortu zuen eztabaidetako bat arkitektura kultur sektore gisa

kontuan hartzeari edo ez hartzeari buruzkoa izan zen. Azkenean, Eurostaten proposamenean eta Frantziako sisteman bakarrik dago jasota –Frantzia izan zen LEGen barruan eman ziren eztabaidatan kontuan hartzearen alde gehien egin zuenetako bat–. Ez Espainiak eta ezta Kataluniak ere ez dute sartu arkitektura beren sistemetan. Aitzitik, Quebecen bai sartu duela arkitektura kulturaren lanbideetako bat bezala.

Komunikabideek, ikus-entzunezkoen industriak eta teknologia berriek ere aparteko aipamena merezi dute. Estatistika-esparru batzuk zaharrak dira, eta horren ondorioz, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriekin lotutako jarduerak ez dira kontuan hartu behar bezain beste. Horri dagokionez, antza denez Quebecen proposamena da egungo errealitateari ondoen egokitzen zaiona, kontzeptu guztiak bereiziz, nahasteak saihesteko, eta horietako bakoitzari merezi duen garrantzia emanez.

- **Ekonomiaren eta kulturaren arteko harremana, kultur estatistiketan geroz eta kezka handiagoa sortzen duen gaia**

Kulturaren dimentsio ekonomikoarekiko kezka geroz eta handiagoa da; hori dela-eta, Frantziak, lanbideen sailkapen bat prestatzeko, *LEG-Culture* taldeko *Task Force 2* lan-taldea zuzendu zuen. Lan-talde horren ondorioek adierazle batzuk eraikitzea proposatzen dute, NACERen sailkapenetatik (*Europako Erkidegorako ekonomia-jardueren sailkapen estatistikoa*) edo CITPtik (*Lanbide-moten Nazioarteko Sailkapena*) abiatuta. Gainera, ondorengo aldagai hauei berariazko garrantzia ematea erabaki zen: sexua, adina, hezkuntza eta heziketa, lanbide-maila, lanaren iraupena, lanean emanten den denbora eta langabezia emanten dena. Hala ere, Kataluniako eta Espainiako estatistikak *Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren* (CNAE 93) eta *Lanbideen Sailkapen Nazionalaren* (CNO 94) araberakoak dira, eta horiek ez datoz bat nazioarteko sailkapenekin, beraz ez dira egokiak enplegu kulturala modu alderagarrian aztertzeko

- ***LEG-Culture* taldeko Task Force 4 nazioarteko eredu bilakatu da kultur ohituren inguruko estatistiken inguruan**

LEG-Culture taldeak europarron kontsumo, ohitura eta praktika kulturalak neurtzeko proposatu zituen adierazleen, aldagaien eta galdetegiaren eredu erreferente bilakatu da nazioartean. Espainiako eta Kataluniako inkestak aldatu egin dira, proposamen horretara egokitzeko. Frantzian ere egiten da ezaugarri horiek dituen inkesta bat, eta azkenean egokitu egingo dela aurreikusi daiteke.

- **Kultur Aniztasunari buruzko Deklarazioa edo Kulturaren Agenda 21 bezalako nazioarteko ereduak proposatutako kontzeptu berrien inguruko estatistikak falta dira**

UNESCOren Kultur Aniztasunari buruzko Deklarazioa eta Munduko Herrien eta Hirien Batasunaren Kulturaren Agenda 21 bezalako eredu kontzeptual berriek globalizazioaren erronken aurrean jartzen dute kultura. Agiri horiek kultur estatistikatan agertu ohi ez diren zenbait alderdi azpimarratzen dituzte: herritarren adierazkortasuna, kulturarako sarbidea, eskubide kulturalak, kulturartekotasuna, aniztasuna, eta abar. Hori horrela, aztertu diren lurraldeetako hiri eta gobernu askok deklarazio horiekiko atxikimendua erakutsi duten arren, inork ez du kontzeptu horiei lotutako politikak ebaluatzea ahalbidetuko duten adierazleak sortzeko berariazko lanik egin.

- **Estatistika kulturalak informazioa biltzeaz arduratzen den erakundearen muga administratiboetara lotzeak baldintzatu egiten du errealitate kulturalaren isla gisa betetzen duten funtzioa**

Aztertu diren estatistika-sistemek ez dute kontuan hartzen dagokien hizkuntza eta kultur eremuaren inguruko informazio estatistikoa. Informazioa muga administratiboetara xedatzen dute, eta horrek mugatu egiten du erabiltzen diren datuetatik abiatuta egin daitekeen kultur errealitatearen irakurketa.

- **Informazio estatistikoak kontuan hartu behar du lurralde-desagregazioa**

Aztertu diren sistema guztietan, adierazle eta aldagai kopuru handi batek lurralde maila desberdinen arabera biltzen dute informazioa: eskualdeak eta probintziak Kataluniaren kasuan, Autonomia Erkidegoak Espainiaren kasuan, departamenduak Frantzia eta eskualdeak Quebecen.

3. Elementu funtzionalak eta komunikaziokoak

Sistema Atributua	QUEBEC	FRANTZIA	ESPAINIA	KATALUNIA
Emaizten komunikazio ziorako sistema	<i>Quebeceko Kulturaren eta Komunikazioaren inguruko estatistika nagusiak</i> <i>L'Observatoire.com</i> . Erakundearen jardueren inguruko berrikuntzei eta garatzen ari diren ikerketen emaitzei buruzko aldizkaria.	Sistema nagusia <i>Chiffres clés</i> urtekariaren eta bere bertsio laburtu den <i>Mini Chiffres clés</i> izenekoaren argitalpena da.	2006. urtean lehenengo aldiz argitaratu da <i>Kultur estatistiken urtekaria 2005</i> <i>Kulturaren zifrak Espainian</i> .	<i>Kultur Estatistikak</i> . Urtero argitaratzen dituzte inkestaren datuak. Datu horiek Sailaren web orrian ere eskuratu daitezke.
Emaizta sektorialen komunikaziorako sistema	<i>Industria zinematografiko eta ikus-entzunezko ekoizpen independenteei buruzko estatistikak</i> . <i>Estatistikak laburrean</i> . Argitalpen honek Quebeceko sektore kulturalarekin eta komunikazioen sektorearekin lotutako gaiak hiltzen ditu. Ale bakoitzak informazio estatistikoaren azterketa, taulak eta grafikoa erakusten ditu.	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Question de culture</i> bilduma, azterlan nagusien argitalpenak biltzen dituena. • <i>Les travaux du DEPS</i> bilduma, egin diren lanen txostenak biltzen dituena. • <i>Développement culturel</i> DEPSren aldizkarian aipatu bi bildumatan argitaratutako azterlan gehienek laburpena agertzen da. • <i>L'Observatoire de l'emploi culturel</i> izenekoaren Notes Bilduma, enpleguari buruzko datuen laburpena jasotzen duena. • DEPStik egiten diren inkestaren inguruko lanari buruzko <i>Documents de travail</i> izenekoak. 	Bereizita agertzen dira: 1. Espainiako ohitura eta praktika kulturalari buruzko inkesta. 2. Museoen eta bilduma museografikoen estatistika 3. Kulturaren arloko finantzazioaren eta gastu publikoaren estatistika. 4. Zinematografiaren estatistika 5. ISBN duten liburuen Espainiako argitalpenen estatistika 6. Espainiako Liburutegi Publikoen estatistika 7. ISMN duen musikaren Espainiako argitalpenen estatistika	Liburutegiak . Bi urtez behin argitaratzen dituzte inkestaren datuak. Datu horiek Sailaren web orrian edo IDESCATEN web orrian ere eskuratu daitezke. Kontsumoa eta ohiturak . Bost urtez behin argitaratzen dituzte inkestaren datuak. Datu horiek internetez ere eskuratu daitezke. Bai Sailaren web orrian eta baita IDESCATEN web orrian ere.
Emaizten argitalpenaren maiztasuna	Urtean Behin: <i>Quebeceko Kulturaren eta Komunikazioaren inguruko estatistika nagusiak</i> <i>Industria zinematografiko eta ikus-entzunezko ekoizpen independenteei buruzko estatistikak</i> . Irregularra: <i>L'Observatoire.com</i> . <i>Estatistikak laburrean</i> .	<i>Chiffres clés</i> argitalpena urtero argitaratzen da. Bildumak eta aldizkariak ere erregulari kaleratzen dira.	Urtekariaren xedea da, urtero, eskuragarri dauden zifrarik berrienak aurkeztea. Argitalpen sektorialak, berriz, maiztasun desberdinarekin argitaratzen dira, aurreko hurrenkerari jarraituz: 1. Ohiturak eta praktikak, ez da aldizkakoa 2. Museoak, bi urtez behin 3. Finantzazioa, urtean behin 4. Zinematografia, urtean behin 5. ISBN argitalpenak, hiru hilabetez behin (aurrerapenak) eta urtero 6. Liburutegiak, urtean behin 7. ISMN Musika, urtean behin	Kasu guztietan eguneratzeen erritmo berean. <i>Indicadors i estadístiques culturals a Catalunya</i> argitalpen berriaren maiztasunari itxaron beharko diogu.
Emaizta argitaratze-ko erabiltzen diren euskarri fisiko eta birtualak	Argitalpen guztiak kaleratzen dira paperean eta web orriaren bidez kontsultatu daitezke. Web orriko aplikazio informatikori esker, erabiltzaileak kontsulta dinamikoa egin dezake, eta bere beharren arabera taulak eraiki ditzake.	Argitalpen guztiak kaleratzen dira paperean eta kontsultatu daitezke web orriaren bidez. Hala ere, <i>Chiffres Clés urtekaria</i> eta <i>Question de culture bilduma</i> ordaindu egin behar dira.	Emaizta guztiak argitaratzen dira paperean eta Kultura Ministerioaren web orrian eskegitzen diren pdf dokumentuetan. EINek prestatutako datuak bere web orrian kontsultatu daitezke. Web orri honek kontsulta dinamikoa egiteko aukera ematen du.	Emaizta guztiak argitaratzen dira paperean eta Kultura Sailaren web orrian eskegitzen diren pdf dokumentuetan. IDESCATEk prestatutako datuak bere web orrian kontsultatu daitezke. Web orri honek kontsulta dinamikoa egiteko aukera ematen du.
Argitalpenaren hurrentasuna	Urtekariak aurreko urteari egiten diete erreferentzia, eta irregulari argitaratzen direnak, berriz, aztergai den sektorearen arabera.	Bi urteko aldea dago argitalpenaren eta datuen erreferentzia-urtearen artean. Adibidez, 2005eko <i>Chiffres clés</i> argitalpenak 2003ko datuak ematen ditu.	Urtekariak kaleratzen dituen estatistiken gaurkotasan-maila sektorearen arabera da. Eguneratuak 2004koak dira. Kultura Ministerioak 2006. urterako aurrekusten duen argitalpenen egutegian ondorengo hauek agertzen dira (aurreko hurrenkeraren arabera): Museoak, 06/11/30ean 2004ko emaitzak argitaratuko dira. Finantzazioa, 06/05/18ean 2004ko emaitzak argitaratuko dira. Zinematografia, 06/09/30ean 2005eko emaitzak argitaratuko dira. ISBN argitalpenak, hiru hilabetez behingo aurrerapenak, eta 06/09/30ean argitalpen orokorra, 2005eko datuekin. ISMN Musika, 06/07/31n 2005eko emaitzak argitaratuko dira.	<i>Kultur Estatistikak</i> . Argitalpen nagusia erreferentziatzen duen urtearen hurrengo urteko uztailaren eta irailaren artean kaleratzen da, paperean. Pdf formatuan lehenago ere eskuratu daitezke.

Ondorioak

• Sistema guztiek argitaratzen dute urtekari bat

Aztertu diren estatistika-sistemen emaitzak kaleratzeko argitalpen nagusia urtekaria da, UNESCOren eta Europako Batasunaren kasuan izan ezik. Kasu horietan ez da urteko emaitzarik argitaratzen. UNESCOk, hala ere, ahalegin garrantzitsu bat egin du, *Kulturaren munduko txostenarekin*, baina ez da 2000. urtetik hona argitaratu .

Zenbait kasutan, urtekaria da lurralde baten kultur arloko informazioa sistematizatzeko saialdirik egokiena. Horixe gertatzen da Espainian eta Katalunian. Hala ere, sistema osatuagoetan, Frantzian edo Quebecen adibidez, argitalpena estatistika-sistema zabalaren isla besterik ez da.

• Komunikazio-politika hobea sistema osatuetan

Sistema osatuek –lehen halakotzat definitu dira Frantzia eta Quebec– komunikazio-politika osatuagoa eta zehaztuagoa dute, garatzen ari diren sistemen kasuan baino (Katalunia eta Espainia). Sistema osatuek, urtekari bat argitaratzeaz gain, bertsio laburtuak, aldizkariak, bildumak eta informazio sektoriala ere argitaratzen dute. Gainera, informazio oso eguneratua dute, eta horrek emaitza estatistikoen argitalpenak duen balioa areagotzen du.

Garatzen ari diren sistemek, sistema osoan eskuragarri dagoen informazioa biltzen eta laburtzen duten urtekarietaz gain, argitalpen sektorialak ere badituzte. Argitalpen sektorial horiek gehiago erantzuten diete sistemako eragileek eta erakundeek dituzten tradizio estatistiko desberdinei aurretiaz diseinatutako komunikazio-politika bati baino.

• Geroz eta garrantzi handiagoa du emaitzen on-line argitalpenak

Emaitza estatistikoak argitaratzeko euskarri nagusia paperak izaten jarraitzen badu ere, azken urte hauetan geroz eta garrantzi handiagoa eskuratzen joan da internet. On-line argitalpenei dagokienez, zenbaitetan modu estatiko eta komertzialean erabili da sarea, eta beste zenbaitetan, berriz, erabilera dinamikoa eta interaktiboa eman zaie. Mutur estatikoan kokatzen da Frantziaren kasua. Bere web orrian *Mini chiffres clés* laburpena eta aldizkari eta agiri sektorialak baino ezin kontsulta daitezke. Gainera, urtekaria eta beste zenbait produktu on-line erosteko aukera ematen du. Kataluniaren eta Espainiaren kasuan, bereizi egin beharra dago Kultura Sailak eta Kultura Ministerioak hurrenez hurren argitaratu-

tako estatistiken eta estatistika institutuek argitaratzen dituztenen artean. Lehengoak sarearen bidez deskarga daitezkeen dokumentu elektronikoetan argitaratzen dira. Institutuetakoek, berriz, zenbait aldagairen kontsulta gurutzatua egiteko aukera ematen duten aplikazio informatikoak dituzte. Azkenik, mutur dinamiko eta interaktiboan kokatu behar dugu Quebecoko Kulturaren Behatokiaren web orria. Bertan eskuragarri dagoen informazio estatistiko guztia kontsulta daiteke, eguneratze-maila onarekin, eta erabiltzailearen beharren arabera taulak eraikitzeko aukera ematen duen aplikazio informatikoaren bidez.

1. Eranskina: Sistema estatistikoaren fitxak

1. Estatistika-esparruen eta -sistemen fitxak (I)

	Eremua	Izenburua	Data
Deskribapena	A1	Sistema	UNESCO
	A2		1
	A3	Deskribapena	UNESCOk, 1986. urtean, <i>Kultur Estatistiken garapenerako esparrua</i> egin zuen. Hala ere, esparru hori ez da berez estatistika-sistema izateraino garatu.
	A4	Erakundea (zeinen mende dagoen)	UNESCO
	A5	Informazioa biltzen duen erakundea	Berariazko galdetegiaren bidez, UNESCOren kide diren herrialdeak dira beren lurraldeari dagokion informazioa biltzeaz arduratzen direnak.
	A6	Aurrekariak	UNESCOk Esparruari dagokionez egin duen lana mundu osoan egin den lehenengo hurbiltze zorrotza dela irizten da.
Informazio-sistema	A7	Bildutako adierazle-kopurua	–
	A8	Informazioa sailkatzeko erabiltzen diren eremuak edo mailak	Esparruak hamar maila planteatzen ditu: Kultura ondarea / Material inprimatuak eta literatura / Musika / Arte eszenikoak / Arte plastikoak eta ikus-arteak / Zinema / Irratia eta telebista / Jarduera soziokulturalak / Jokoak eta kirolak / Izadia eta ingurumena.
	A9	Berrikuspen metodologikoak	UNESCOk 1986. urtean proposatu zuen Esparrua berrikusteko asmoa adierazi du. Hala ere, berrikuspen hori ez da gauzatu oraindik.
	A10	Informazioaren tratamendu grafikoa	UNESCOk zabaltzen duen informazioa tauletan eta grafikoetan ematen da.

1. Estatistika-esparruen eta -sistemen fitxak (II)

	Eremua	Izenburua	Datua
Tenporaltasuna	A11	Abiarazi deneko urtea	Ez dago
	A12	Eguneratze-kopurua	Ez dago
	A13	Datuak eguneratzeko maiztasuna	Ez dago
	A14	Emaizak komunikatzeko eta argitaratzeko sistema edo sistemak	UNESCOren Estatistika Institutuak bere web orriaren bidez zabaltzen ditu egiten dituen ikerketei esker eskuratzen dituen datu estatistikoak. 1998. eta 2000. urteetan <i>Kulturaren munduko txostena</i> argitaratu zen.
	A15	Emaizta sektorialak komunikatzeko eta argitaratzeko sistema	Berriarazko argitalpenen bidez
	A16	Emaizak argitaratzeko maiztasuna	Datuak behin egiten ari diren ikerketak amaitutakoan eguneratzen dira. Era berean, <i>Kulturaren munduko txostenak</i> bi urtez behingo argitalpena izan behar zuen, baina gaur arte bi edizio besterik ez dira argitaratu.
	A17	Emaizak argitaratzeko erabiltzen diren euskarri fisiko eta birtualak	Informazioa hainbat bide erabiliz zabaltzen da: interneten eskuragarri dagoen datu-base baten bidez, eta papelean eta CD-ROM euskarrian argitaratzen diren aldizkako argitalpenen bidez.
	A18	Argitalpenaren hurrentasuna	Ez dago
	A19	Hartzaileak	UNESCOren kide diren estatuak eta komunitate zientifikoa, oro har.

	Eremua	Izenburua	Datua
Deskribapena	A1	Sistema	Europako Batasuna
	A2		2
	A3	Deskribapena	Europako Batasunarentzako eta kide dituen estatuentzako informazio-zerbitzua. Eurostaten barruan, LEG (<i>Leadership Group on Cultural Statistics</i>) taldea sortu zen. Talde honek EBn eredarria izan den kultur adierazleen proposamena egin zuen.
	A4	Erakundea (zeinen mende dagoen)	Europako Batzordea
	A5	Informazioa biltzen duen erakundea	Kide diren estatuak
	A6	Aurrekariak	LEGen proposamenak UNESCOn du aurrekaririk zuzenena.
Informazio-sistema	A7	Bildutako adierazle-kopurua	Ez dago
	A8	Informazioa sailkatzeko erabiltzen diren eremuak edo mailak	Zortzi eremu: Kultura ondarea/ Agiritegiak / Liburutegiak / Liburuak eta prentsa / Arte plastikoak / Arkitektura / Arte eszenikoak / Ikus-entzunezko komunikabideak eta multimedia komunikabideak. Sei funtzio: zaintza / sorkuntza / ekoizpena / hedapena / merkataritza, salmenta / gaikuntza, hezkuntza.
	A9	Berrikuspen metodologikoak	Ez da izan
	A10	Informazioaren tratamendu grafikoa	Ez dago
Tenporaltasuna	A11	Abiarazi deneko urtea	Ez dago
	A12	Eguneratze-kopurua	Ez dago
	A13	Datuak eguneratzeko maiztasuna	Ez dago
	A14	Emaitzak komunikatzeko eta argitaratzeko sistema edo sistemak	Ez dago
	A15	Emaitza sektorialak komunikatzeko eta argitaratzeko sistema	Ez dago
	A16	Emaitzak argitaratzeko maiztasuna	Ez dago
	A17	Emaitzak argitaratzeko erabiltzen diren euskarri fisiko eta birtualak	Ez dago
	A18	Argitalpenaren hurrentasuna	Ez dago
	A19	Hartzaileak	Ez dago

	Eremua	Izenburua	Datua
Deskribapena	A1	Sistema	Espainia
	A2		3
	A3	Deskribapena	Espainiako kultur estatistiken sistema EINek (Estatistikako Institutu Nazionala) eta Kultura Ministerioak egiten dituzten estatistikatan oinarritzen da. <i>2005–2008rako Estatistika Plan Nazionalak</i> eragiketa estatistikoak aurreikusten ditu kulturaren arloan.
	A4	Erakundea (zeinen mende dagoen)	EIN eta Kultura Ministerioa
	A5	Informazioa biltzen duen erakundea	EIN, Kultura Ministerioa eta Autonomia Erkidegoen estatistika-zerbitzuak.
	A6	Aurrekariak	Informazio estatistikoa sistematizatzeko saialdiak ondorengo argitalpen hauetan daude jasota: Kulturaren zifrak <i>Espainian. Estatistikak eta adierazleak. 2002.</i> eta <i>Kultura zifratan, 1995.</i> urtetik.
Informazio-sistema	A7	Bildutako adierazle-kopurua	–
	A8	Informazioa sailkatzeko erabiltzen diren eremuak edo mailak	<i>Estatistika Plan Nazionalak</i> bederatzia eragiketa aurreikusten ditu: ISBN duten liburuen argitalpena / Liburuen argitalpen-ekoizpena / Liburutegiak / Museoak eta bildumak / Agiritegiak / Musikaren argitalpena Espainian / Musika- eta dantza-baliabideen datu-baseen ustiapen estatistikoa / Zinematografia / Kulturaren arloko finantzazioaren eta gastu publikoaren estatistika.
	A9	Berrikuspem metodologikoak	Liburutegiak. 2002 ISO 2789 Araua Liburuak. UNESCOren Esparrurako egokitzapena 1985. urtean.
	A10	Informazioaren tratamendu grafikoa	–
Tenporaltasuna	A11	Abiarazi deneko urtea	1959. urtetik biltzen da liburutegien inguruko informazioa. 1965. urtetik egiten da liburutegien argitalpen-ekoizpenari buruzko estatistika. 12/1989 Legearen 8.1 artikulua <i>Estatistika Plan Nazionala</i> aipatzen du.
	A12	Eguneratze-kopurua	Sektorearen arabera
	A13	Datuak eguneratzeko maiztasuna	Sektorearen arabera
	A14	Emaitzak komunikatzeko eta argitaratzeko sistema edo sistemak	2006. urtean lehenengo aldiz argitaratu da <i>Kultur estatistiken urtekaria 2005 Kulturaren zifrak Espainian.</i>

	Eremua	Izenburua	Datua
Tenporaltasuna	A15	Emaizta sektorialak komunikatzeko eta argitaratzeko sistemas	Bereizita agertzen dira: 1. Espainiako ohitura eta praktika kulturaleri buruzko inkesta 2. Museoen eta bilduma museografikoen estatistika 3. Kulturaren arloko finantzazioaren eta gastu publikoaren estatistika 4. Zinematografiaren estatistika 5. ISBN duten liburuen Espainiako argitalpenen estatistika 6. Espainiako Liburutegi Publikoen estatistika 7. ISMN duen musikaren Espainiako argitalpenen estatistika
	A16	Emaiztak argitaratzeko maiztasuna	Urtekariaren xedea da, urtero, eskuragarri dauden zifrarik berrienak aurkeztea. Argitalpen sektorialak, berriz, maiztasun desberdinarekin argitaratzen dira, aurreko hurrenkerari jarraituz: 1. Ohiturak eta praktikak, ez da aldizkako 2. Museoa, bi urtez behin 3. Finantzazioa, urtean behin 4. Zinematografia, urtean behin 5. ISBN argitalpenak, hiru hilabetez behin (aurrerapenak) eta urtero 6. Liburutegiak, urtean behin 7. ISMN musika, urtero
	A17	Emaiztak argitaratzeko erabiltzen diren euskarri fisiko eta birtualak	Emaizta guztiak argitaratzen dira paperean eta Kultura Ministerioaren web orrian eskegitzen diren pdf dokumentuetan. EINek prestatutako datuak bere web orrian kontsultatu daitezke. Web orri honek kontsulta dinamikoa egiteko aukera ematen du.
	A18	Argitalpenaren hurrentasuna	Urtekariak kaleratzen dituen estatistiken gaurkotasun-maila sektorearen araberakoa da. Eguneratuenak 2004koak dira. Kultura Ministerioak 2006. urterako aurreikusten duen argitalpenen egutegian ondorengo hauek agertzen dira (aurreko hurrenkeraren arabera): 2. Museoa, 06/11/30ean 2004ko emaitzak argitaratuko dira. Finantzazioa, 06/05/18an 2004ko emaitzak argitaratuko dira. Zinematografia, 06/09/30ean 2005eko emaitzak argitaratuko dira. ISBN argitalpenak, hiru hilabetez behingo aurrerapenak, eta 06/09/30ean argitalpen orokorra, 2005eko datuekin. ISMN Musika, 06/07/31n 2005eko emaitzak argitaratuko dira.
	A19	Hartzaileak	Herritarrak, sektore guzti-tako teknikariak, administrazioa, pribatuak...

	Eremua	Izenburua	Datua
Deskribapena	A1	Sistema	Katalunia
	A2		4
	A3	Deskribapena	Kataluniako kultur estatistiken sistema aztergai den sektorearen edo arloaren araberrako inkestatan eta hurbilketatuan oinarritzen da. Urtero ekoizpen estatistiko osoaren hautaketa bat argitaratzen da, <i>Kataluniako Kultur Estatistiken urtekarian</i> .
	A4	Erakundea (zeinen mende da- goen)	Kultura Saila
	A5	Informazioa biltzen duen era- kundea	Kultura Saila, Hezkuntza Saila, IDESCAT, EIN
	A6	Aurrekariak	<i>Pla Marc d'Estadistiques Culturels</i>
Informazio- sistema	A7	Bildutako adierazle-kopurua	Urtekariak 157 eragiketa estatistiko biltzen ditu
	A8	Informazioa sailkatzeko erabil- tzen diren eremuak edo mailak	Agiritegiak / Liburutegiak / Museoak / Ondare arkitektoniko eta arkeologikoa / Arte plastikoak / Zinema / Liburua / Prentsa / Antzerkia eta dantza / Hizkuntza / Finantzazioa / Industria kulturalak / Kontsumo eta ohitura kulturalak.
	A9	Berrikuspen metodologikoak	Zenbait aldaketa egon dira erroldatan: 2000. urtean agiritegiak / liburutegien kasuan, berrikuspenak egin dira maileguren eta langileen inguruan, 2002. urtean / Antzerkia eta dantza 2000. urtean, erroldan konpainiak ere txertatu zirenean.
	A10	Informazioaren tratamendu grafikoa	<i>Kultur estatistikek</i> taulatan erakusten dituzte datuak, inkestek eta urteko azterlan sektorialek bezala. Laburpen gisa argitaratzen diren txostenek, <i>Kultur adierazleak eta estatistikak</i> (2006) bezalakoek, grafikotan ematen dute informazioa.
Tenporaltasuna	A11	Abiarazi deneko urtea	Liburutegiak, 1986. urtetik. Kultur estatistikak, 1992-1993. Kontsumoa eta ohiturak, 1985
	A12	Eguneratze-kopurua	Liburutegiak: 8 Kultur estatistikak: 8 Kontsumoa eta ohiturak: 4
	A13	Datuak eguneratzeko maizta- suna	Liburutegiak. Bi urtez behin Kultur estatistikak. Urtero Kontsumoa eta ohiturak. Bost urtez behin
	A14	Emaitzak komunikatzeko eta ar- gitaratzeko sistema edo siste- mak	<i>Kultur Estatistikak</i> . Urtero argitaratzen dituzte inkestaren datuak. Datu horiek Sailaren web orrian ere eskuratu daitezke.

	Eremua	Izenburua	Datua
Tenporaltasuna	A15	Eraitza sektorialak komunikatzeko eta argitaratzeko sistema	Liburutegiak. Bi urtez behin argitaratzen dituzte inkestaren datuak. Datu horiek Sailaren web orrian edo IDESCATen web orrian ere eskuratu daitezke. Kontsumoa eta ohiturak. Bost urtez behin argitaratzen dituzte inkestaren datuak. Datu horiek internetez ere eskuratu daitezke. Bai Sailaren web orrian eta baita IDESCATen web orrian ere.
	A16	Eraitzak argitaratzeko maiztasuna	Kasu guztietan eguneratzeen eritmo berean. <i>Indicadors i Estadístiques culturals a Catalunya</i> argitalpen berriaren maiztasunari itxaron beharko diogu.
	A17	Eraitzak argitaratzeko erabiltzen diren euskarri fisiko eta birtualak	Eraitza guztiak argitaratzen dira paperean eta Kultura Sailaren web orrian eskegitzen diren pdf dokumentuetan. IDESCATEk prestatutako datuak bere web orrian kontsultatu daitezke. Web orri honek kontsulta dinamikoa egiteko aukera ematen du.
	A18	Argitalpenaren hurrentasuna	<i>Kultur Estatistikak</i> . Argitalpen nagusia erreferentziatzat duen urtearen hurrengo urteko uztailaren eta irailaren artean kaleratzen da, paperean. Pdf formatuan lehenago ere eskuratu daiteke.
	A19	Hartzaileak	Herritarrak, sektore guztietako teknikariak, administrazioa, pribatuak...

	Eremua	Izenburua	Datua
Deskribapena	A1	Sistema	Quebec
	A2		5
	A3	Deskribapena	Quebeceko kultur estatistiken sistema Quebeceko Kulturaren eta Komunikazioen Behatokiaren baitan dago.
	A4	Erakundea (zeinen mende dagoen)	Quebeceko Kulturaren eta Komunikazioen Behatokia.
	A5	Informazioa biltzen duen erakundea	Quebeceko Kulturaren eta Komunikazioen Behatokia.
	A6	Aurrekariak	<i>Éléments d'un cadre conceptuel des statistiques de la culture et des communications.</i>
Informazio-sistema	A7	Bildutako adierazle-kopurua	–
	A8	Informazioa sailkatzeko erabiltzen diren eremuak edo mailak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikus-arteak eta ofizio artistikoak <ol style="list-style-type: none"> 1.1 Ikus-arteetan artistak 1.2 Artista-zentroak 1.3 Artelanen erosketa 2. Arte eszenikoak <ol style="list-style-type: none"> 2.1 Ikuskizunetara joateko maiztasuna 2.2 Dantza 2.3. Arte eszenikoen hedapena 2.4 Musika 2.5 Antzerkia 3. Ondarea, museoak eta agiritegiak <ol style="list-style-type: none"> 3.1. Museoak 4. Liburutegiak <ol style="list-style-type: none"> 4.1 Liburutegi publikoak 4.2 Unibertsitateetako liburutegiak 5. Liburua 6. Prentsa <ol style="list-style-type: none"> 6.1. Prentsa kulturalaren argitaratzaileak 6.2. Argitalpen kolektiboak (erakundeenak) 7. Soinu-erregistroak 8. Zinema eta ikus-entzunezkoak <ol style="list-style-type: none"> 8.1. Filmak 9. Irratia eta telebista <ol style="list-style-type: none"> 9.1. Telebista pribatua 9.2. Telebista publikoa 9.3. Telebista espezializatua eta <i>pay-per-view</i> 9.4. Irrati pribatua 9.5. Irrati publikoa 9.6. Kable bidezko irrati eta telebisten banatzaileak eta bestelako banatzaileak. 9.7. Telebista ikusleak 9.8. Irratia entzuleak 10. Multimedia

	Eremua	Izenburua	Datua
Informazio-sistema	A8	Informazioa sailkatzeko erabiltzen diren eremuak edo mailak	Zeharkako eremuak: Kulturarekin eta komunikazioekin lotutako lanbideak: Saikapena eta profesionalak / Profesionalen banaketa Norbanakoak eta etxeak: Kultur ohiturak / Etxeetako gastua / Aisialdiaren erabilera Kulturaren egiten den gastu publikoa: Quebeceko administrazio publikoa Eskualdeak: Eskualdekako deskribapen estatistikoak
	A9	Berrikuspen metodologikoak	–
	A10	Informazioaren tratamendu grafikoak	Datu-basean datuak taulatan erakusten dira. Argitalpenetan, berriz, taulak eta grafikoak konbinatzen dira.
Tenporaltasuna	A11	Abiarazi deneko urtea	–
	A12	Eguneratze-kopurua	–
	A13	Datuak eguneratzeko maiztasuna	Urtean behin
	A14	Emaizak komunikatzeko eta argitaratzeko sistema edo sistematik	<i>Quebeceko Kulturaren eta Komunikazioaren inguruko estatistika nagusiak:</i> <i>L'Observatoire.com</i> . Erakundearen jardueren inguruko berrikuntzei eta garatzen ari diren ikerketen emaitzei buruzko aldizkaria.
	A15	Emaizta sektorialak komunikatzeko eta argitaratzeko sistema	<i>Industria zinematografiko eta ikus-entzunezko ekoizpen independenteen buruzko estatistikak.</i> <i>Estatistikak laburrean</i> . Argitalpen honek Quebeceko sektore kulturalarekin eta komunikazioen sektorearekin lotutako gaiei heltzen die. Ale bakoitzak informazio estatistikoaren azterketa, taulak eta grafikoak erakusten ditu.
	A16	Emaizak argitaratzeko maiztasuna	Urtean behin <i>Quebeceko Kulturaren eta Komunikazioaren inguruko estatistika nagusiak:</i> <i>Industria zinematografiko eta ikus-entzunezko ekoizpen independenteen buruzko estatistikak.</i> Irregularra <i>L'Observatoire.com</i> <i>Estatistikak laburrean</i>
	A17	Emaizak argitaratzeko erabiltzen diren euskarri fisiko eta birtualak	Paperean Web orriaren bidez
	A18	Argitalpenaren hurrentasuna	Urtekariek aurreko urteari egiten diete erreferentzia, eta irregularki argitaratzen direnek, berriz, aztergai den sektorearen arabera.
A19	Hartzaileak	Sektore guztietako eta administrazio teknikiariak, lehen mailako erabiltzaile gisa, eta herritarrek oro har, egin ditzaketen kontsulten bidez.	

	Eremua	Izenburua	Datua
Deskribapen	A1	Sistema	Frantzia
	A2		6
	A3	Deskribapena	Frantziako estatistika-sistema aztergai diren eremuen egoera ebaluatzeko xedez aldizka egiten diren inkestetan oinarrituta egiten da.
	A4	Erakundea (zeinen mende da- goen)	Département des Études, de la Prospective et des statistiques (DEPS)
	A5	Informazioa biltzen duen era- kundea	Institut national de la statistique et des études économiques (INSEE)
	A6	Aurrekariak	<i>Cadre pour les statistiques culturelles (1986)</i> eta <i>Nomenclature d'activités culturelles (1989)</i> dira Frantziako kultur estatistikak garatzeko oi- narri gisa hartu diren bi esparruak.
Informazio- sistema	A7	Bildutako adierazle-kopurua	–
	A8	Informazioa sailkatzeko era- biltzen diren eremuak edo mailak	Hemeretzi maila: Ondarea eta arkitektura / Ar- keologia / Museok / Arte plastikoak / Agirite- giak / Liburutegiak / Liburua / Prentsa / Fono- gramak / Lirika, musika eta dantza / Antzerkia eta ikuskizunak / Zinema / Bideoa / Irakaskun- tza artistikoa / Egile-eskubideak eta antzekoak / Azpiegiturak eskualdeka / Kulturaren finan- tazioa / Lanbide kulturalak eta enplegua / Kanpoko merkataritza.
	A9	Berrikuspen metodologikoak	
	A10	Informazioaren tratamendu gra- fikoa	<i>Chiffres clés</i> argitalpenak taulak eta grafikoak erakusten ditu
Tenporaltasuna	A11	Abiarazi deneko urtea	1992
	A12	Eguneratze-kopurua	11
	A13	Datuak eguneratzeko maizta- suna	Estatistika-sistema osatzen duten inkesta guztiak eguneratze-maiztasun desberdina dute (testuan zehazten da).
	A14	Emaitzak komunikatzeko eta argitaratzeko sistema edo sis- temak	Sistema nagusia <i>Chiffres clés</i> urtekariaren eta bere bertsio laburtu den <i>Mini Chiffres clés</i> ize- nekoaren argitalpena da.

	Eremua	Izenburua	Datua
Tenporaltasuna	A15	Emaizta sektorialak komunikatzeko eta argitaratzeko sistema	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Question de culture</i> bilduma, azterlan nagusien argitalpenak biltzen dituena. • <i>Les travaux du DEPS</i> bilduma, egin diren lanen txostenak biltzen dituena. • <i>Développement culturel</i> DEPSren aldizkarian aipatu bi bildumatan argitaratutako azterlan gehien laborpena agertzen da. • <i>L'Observatoire de l'emploi culturel</i> izenekoaren Notes Bilduma, enpleguari buruzko datuen laborpena jasotzen duena. • DEPStik egiten diren inkestak inguruko lanari buruzko <i>Documents de travail</i> izenekoak.
	A16	Emaiztak argitaratzeko maiztasuna	<i>Chiffres clés</i> argitalpena urtero argitaratzen da. Bildumak eta aldizkariak ere erregularoki kaleratzen dira.
	A17	Emaiztak argitaratzeko erabiltzen diren euskarri fisiko eta birtualak	Argitalpen guztiak kaleratzen dira paperean eta kontsultatu daitezke web orriaren bidez. Hala ere, <i>Chiffres Clés</i> urtekaria eta <i>Question de culture</i> bilduma ordaindu egin behar dira
	A18	Argitalpenaren hurrentasuna	Bi urteko aldea dago argitalpenaren eta datuen erreferentzia-urtearen artean. Adibidez, 2005eko <i>Chiffres clés</i> argitalpenak 2003ko datuak ematen ditu.
	A19	Hartzaileak	Sektore guztietako eta administrazioeko teknikariak, lehen mailako erabiltzaile gisa, eta herritarrak oro har, egin ditzaketan kontsulten bidez.

2. Eranskina: Definizioak

LIBURUA

Liburuak. Liburu bat aldizkakoa ez den argitalpen bat da, inprimatuta edo formatu elektronikoa kaleratzen dena, eta gutxienez 48 orri dituena. Liburuak dira, halaber, gutxienez 32 orri dituzten poesia-bildumak, eta gutxienez 16 orri dituzten eta aldizkakoak ez diren hurrei zuzendutako argitalpenak, helduei zuzendutako komikiak eta eskola-eskuliburuak.

- Agente literarioak
- Partitura-editoreak
- Gobernuko editoreak
- Eskola-editoreak
- Literatura orokorreko editoreak
- Editore zientifiko eta teknikoak
- Partituren xehetako salmenta
- Liburuaren zabaltzaileak, banatzaileak eta zabaltzaile-banatzaileak
- Liburu-dendak
- Bigarren eskuko liburu-dendak
- Liburu-azoken edo liburuarekin lotutako ekitaldien antolatzaileak
- Liburuarekin lotutako prestakuntzarako eta hezkuntzarako establezimenduak
- Liburuaren sektoreko establezimenduak.

QUEBEC

Liburuak. Eskuz idatzita edo inprimatuta dauden paper-orriek, pergaminoek edo beste materialek osatzen duten multzoa; orriak ertz batetik bat eginik egoten dira: elkarri josita, kolatuta, eraztunez lotuta eta abar. Egurrezko, kartozko, paperezko edo beste materialez eginiko azala dute, osorik bolumen bat eratuz.

ESPAINIA

LIBURUA

ISBN. Liburuentzako nazioarteko zenbaki normalizatua da; liburu baten argitaletxe jakin batetako eta edizio jakin bate-tako argitalpena identifikatzen du. Lanak bolumen bat bai-no gehiago baditu, argitalpen osoari zenbaki bat ematen zaio, eta ondoren beste zenbaki batzuk ematen zaizkio bo-lumen edo fisikoki independentea den unitate bakoitzari. Edizio berri orok ISBN berri bat izango du. Aldaketarik izan ez duten eta editore berak argitaratzen dituen berrinpri-matzeek ez dute ISBN berririk behar. ISBN sistema hori li-buruentzat diseinatu zen hasiera batean, baina *International ISBN Agency* izenekoak gomendatuta, liburuak ez diren beste materialetara ere hedatu da. Horretarako, material ho-riek ondorengo baldintza hauetako bi bete beharko dituzte gutxienez: liburu-editore batek ekoiztua izatea, liburu-den-datan saltzea, liburu baten osagarri izatea, informazioa ja-sotzea, lege-gordailuari buruzko legediaren mende egotea, edo Liburutegi Nazionalak liburu gisa onartzea.

ESPAINIA

Liburu. Liburuaren definizioa ISBNren nazioarteko sail- kapenak ezartzen duen definizioan oinarritzen da.

KATALUNIA

ONDAREA ETA MUSEOAK

Ondarea. Establezimendu horien esku-hartze eremua UNESCOk kultur ondare material eta ez-material gisa ulertzen duen horri eta paisaia naturalei dagokie. Ondarea kultur arloko elementu materialez eta ez-materialez osatutako multzo bat da, esanahi anitzez kargatutakoa, dimensio kolektiboa duena, eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen dena. Museo-erakundeak dira irabazi asmorik ez duten establezimenduak, museoak, erakusketa-etxeak eta interpretazio-guneak, bildumak eskuratzeko, kontserbatzeko, ikertzeko eta kudeatzeko funtzioak betetzeaz gain, artea, historia eta zientziak bezalako arloetara xedatutako hezkuntza- eta hedapen-gune direnak.

Museoak. Museotzat joko dira irabazi asmorik gabeko entitate iraunkorrak, xedetzat bilduma bat ikertzea, eskuratzea, kontserbatzea eta kudeatzea dutenak, eta, aldi berean, publikoarentzat irekita dauden erakusketak aurkezten dituztenak, hezkuntzaren edo kulturaren arloko jarduerak antolatzen dituztenak, edo argitalpenak ekoizten dituztenak, horiei balioa emateko, hezteko eta zabaltzeko funtzioak betez.

Erabiltzen den tipologia:

- Arte-museoak
- Historiaren, etnologiaren eta arkeologiaren arloko museoak
- Natur eta ingurumen zientzien museoak.
- Zientziaren eta teknologiaren arloko museoak

QUEBEC

Ondarea. Babespeko espazioen araudiak lau familia handi bereizten ditu: tokiak, monumentu historikoetarako sarbideak, babespeko espazioak eta arkitektura-rekin, hiriarekin eta paisaiarekin lotutako ondarearen babes-eremuak.

FRANTZIA

ONDAREA ETA MUSEOAK

Museoak. Ondasunez osatutako bilduma iraunkorrak, ondasun horiek kontserbatzea eta erakustea interes publikokoa denean, eta jendearen ezagutza, hezkuntza eta plazerra sustatzeko moduan antolatuta daudenean.

FRANTZIA

Ondarea. Espainiako Ondare Historikoaren 16/1985 Legea, eta Legearen garapen partzialerako 111/1986 Errege Dekretua. Legeak, bere lehenengo artikuluan, Espainiako Ondare Artistikoaren kontzeptua zehazten du: *“Espainiako Ondare Historikoa osatzen dute interes artistikoa, historikoa, paleontologikoa, arkeologikoa, etnografikoa, zientifikoa edo teknikoa duten objektu higiezinak edo higigarriak. Ondare dokumental eta bibliografiko bera osatzen dute aztarnategi eta gune arkeologikoak ere, eta baita balio artistiko, historiko edo antropologikoa duten gune naturalek, lorategiek eta parkeak ere”*. Lege horrek, gainera, horiek inbentariatuta egon beharra xedatzen du: *“Espainiako Ondare Historikoaren ondasun garrantzitsuenak inbentariatu edo interes kulturalako aitortu beharko dira, Lege honetan aurreikusten den moduan”*.

ESPAINIA

Museoak. Estatistikan erabiltzen den museo-kontzeptua Espainiako Ondare Historikoari buruzko 1985eko ekainaren 26ko 16/1985 Legeak zehaztutakoa da. Horren arabera, *“Museoak dira, izaera iraunkorra izan eta balio historikoa, artistikoa, zientifikoa eta teknikoa, edo kultur izaerarako beste edozein ezaugarri duten multzo eta bildumak eskuratzen, kontserbatzen, ikertzen, komunikatzen eta erakusten diren erakundeak, betiere aztertzeke, heziketarako eta kontenplaziorako erabiltzen badira”*.

Museoen eta Bilduma Museografikoen tipologiaren arabera sailkapenak UNESCOk ezarritakoari erantzuten

ONDAREA ETA MUSEOAK

dio funtsean, adituek egindako ekarpenetatik eratorritako aldaketekin, batez ere Autonomia Erkidego bakoitzaren errealitatera egokitzeko.

ESPAINIA

Museoak. Museoak eta bildumak erakunde iraunkorrak dira, irabazi asmorik gabeak, jendearentzako irekiak, ondasun kultural higigarri nahiz higiezinak bildu eta horiek kontserbatzen, dokumentatzen, aztertzen, erakusten eta hedatzen dituztenak.

KATALUNIA

LIBURUTEGIAK

IFLArekin (Liburuzainen eta Liburutegien Elkarteen Nazioarteko Federazioa) batera zehaztutako definizioa da.

Liburutegiak. Liburutegi publikoa komunitateak sortu, mantendu eta finantzatzeko erakundea da, tokiko, eskualdeko edo nazioko gobernuaren bidez, edota beste komunitate erakunderen baten bidez. Ezagutzarako, informazioarako eta sormenezko lanetarako sarbidea eskaintzen du, baliabide eta zerbitzu mota ugari erabiliz horretarako, eta komunitateko kide guztiek erabil dezakete, modu berean, arraza, herritartasun, adin, sexu, erlijio, hizkuntza, egoera fisiko, ekonomia eta lan egoera, eta hezkuntzaren araberrako bereizketarik egin gabe.

Liburutegi publikoaren oinarritzko eginkizuna baliabi-deak eta zerbitzuak eskaintzea da, era askotako bideak erabiliz, gizabanakoen eta taldeen premiak asetzeko, heziketari, informazioari eta norberaren garapenari –jolasak eta aisialdia barne– dagokionez. Betekizun garrantzitsua dute gizarte demokratikoaren aurrerabideari dagokionez, ezagutza, ideia eta iritzi ugari eskuratzeko aukera eskaintzen baitiote gizabanakoari.

UNESCOn arabera, liburutegiak honela sailka daitezke: Liburutegi nazionalak; goi-mailako heziketa-zentroetako liburutegiak; espezializatuta ez dauden beste liburutegi garrantzitsuak; eskola-liburutegiak; liburutegi espezializatuak; liburutegi publiko edo herrikoiak.

Liburutegiak. Sektore honek jarduera nagusitzat dokumentuak eskuratzeko, lantzea eta zabaltzea duten erakundeak hartzen ditu barruan. Dokumentu horiek inprimatuta egon daitezke, edo beste euskarri-motaren batean aurkez daitezke. Euskarri desberdinen erabilerarako, erakundeko langileek orientazioa eskaintzen dieten erabiltzaileei, in-

UNESCO

QUEBEC

LIBURUTEGIAK

formazio-, ikerketa-, prestakuntza- edo aisialdi-beharren arabera, Sektore horrek jarduera nagusitzat dokumentazioaren tekniketari eta zientzietan espezializatutako langileen prestakuntza duten erakundeak ere hartzen ditu.

Quebeceko Estatistika Institutuak ondorengo maila hauek bereizten ditu: liburutegi nazionalak, liburutegi publikoak, liburutegi publikoerri zerbitzu emateko eskualdeko zentroak, ikastetxeetako liburutegiak, unibertsitateetako liburutegiak, eskolako liburutegiak, dokumentazio-zentroak eta liburutegi espezializatuak, bibliotekonomiako heziketa- eta prestakuntza-zentroak, eta aurreko definizio horiekin guztiekin bat ez datozen eredu horiei irekita egongo den liburutegi-maila ireki bat.

QUEBEC

Liburutegiak. Kulturaren eta Komunikazioen Ministerioak, bere urtekari estatistikoan, liburutegi publiko mota hauek bereizten ditu: udal liburutegiak, mailegurako departamendu-liburutegiak, itsasoz besteko departamenduetako departamendu-liburutegiak, eta estatus berezi bat duten liburutegiak, hala nola Frantziako Liburutegi Nazionala, Informazioaren Liburutegi Publikoa, Zientziaren eta Industriaren Hiriaren Mediateka eta “liburuekin gozatzea” haur-liburutegia. Liburutegi publikoen sailkapen horrez gain, Kultura Ministerioak unibertsitate-liburutegietako datuak ere biltzen ditu.

FRANTZIA

UNESCO/IFLaren definizioa erabiltzen du.

Liburutegia. Azterketa-unitatea liburutegia da, eta bere definizioa ondorengo hau da (ISO 2789 Araua): liburutegi bat izango da xede nagusia dokumentuen bilduma antolatu bat biltzea eta mantentzea eta, informazioaren, ikerketaren, hezkuntzaren, kulturaren edo aisialdiaren arloekin zerikusia duten beharrak asetzeko helburuarekin, erabiltzaileen artean informazio-baliabideen erabilera sustatzea

ESPAINIA

LIBURUTEGIAK

ESPAINIA

dituen erakundea edo erakundearen atala. Estatistika hau egiteko, liburutegizat unitate administratiboa hartu da, eta unitate administratibo hori zerbitzu-gune batez edo gehiagoz osatuta egon daiteke.

Unitate administratiboa. Edozein liburutegi independente, edo liburutegi-talde, zuzendaritza bakarraren menpe edo administrazio bakarraren menpe daudenean. Ikerketa honen helburuetarako, unitate administratibotzat hartu da kudeaketa tekniko eta administratibo propiorako gaitasuna duen liburutegi edo liburutegi-multzo oro.

Zerbitzu-gunea. Erabiltzaileei zerbitzu ematen dieten liburutegi guztiak, liburutegi independenteak izan edo unitate administratibo zabalago bat osatzen duten liburutegiak izan. Zerbitzu-gune finkoak eta mugikorrek kontabilizatu behar dira. Zerbitzu-gune mugikorrek dira liburutegi-zerbitzuak emateko erabiltzen diren ibilgailuak, ez ibilgailu horrek egiten dituen geldialdiak.

Liburutegi Nazionala. Ondorengo irizpide hauek betetzen dituen da: funts bibliografikoak, inprimatuak, eskuz idatzitakoak eta liburuak ez direnak, edozein euskarri materialetan eta Espainiako hizkuntza ofizial batean edo dialekto batean idatzitakoak, biltzen, katalogatzen eta kontserbatzen ditu; legez du ezarrita lurralde nazional osoaren Lege Gordailua, Espainiako ekoizpen bibliografikoari buruzko informazioa prestatzeko eta zabaltzeko helburuarekin, lege-gordailuan egiten diren sarreratan oinarrituta; eta ikerketa- eta garapen-programak gauzatzeko, koordinatzen eta sustatzen ditu bere eskumenekoak diren alorretan.

Autonomia Erkidegoetako Liburutegi Nagusiak. Autonomia Erkidego jakin bati zerbitzu ematen diotenak dira, eta liburutegi nazionalaren funtzioak betetzen dituzte, baina beren lurralde-eremuaren barruan. Horietako batzuk liburutegi publikoaren zerbitzuak eskaintzen dituzte.

LIBURUTEGIAK

ESPAINIA

Liburutegi Publikoak. Liburutegi bat publikoa izango da ondorengo irizpide hauek betetzen dituzenean: izaera orokorreko funtsen bilduma bat du, kulturaren, hezkuntzaren, aisialdiaren eta gizartearen arloko informazio-zerbitzuak eskaintzen ditu, eta herritar guztien eskura daude; dokumentuak mailegatzeko eta kontsultatzeko zerbitzuak eskaintzen ditu, doan eta libreki; liburutegi publikoen funtsak denentzat irekiak dira, eta maileguan utz daitezke. Hala ere, segurtasun- eta kontserbazio-arrazoiengatik beharrezkoa denean, funts horien zati batetarako sarbidea mugatu egin daiteke.

Berriazko erabiltzaile-taldeentzako liburutegiak (espezializatu gabeak). Izaera orokorreko bilduma bat dute, eta beren zerbitzuak erabiltzaile-multzo jakin batzuei bakarrik zuzentzen zaizkie, hala nola presoei, ospitaleetako gaixoei, enpresa batetako langileei, soldaduei, eta abar.

Goi-mailako irakaskuntzako erakundeen liburutegiak. Unibertsitateko eta goi-mailako hezkuntza erakundeetako ikasleei nahiz langile akademiko eta profesionali zerbitzuak eskaintzen dizkietenak dira; jendeari oro har ere eskaini diezaiekete zerbitzua.

Liburutegi espezializatuak. Ezagutzaren berriazko diziplina edo eremu bati buruzko funtsen bilduma bat duten horiek dira. Liburutegi espezializatuak, zein erakunderen mende dauden kontuan izanik, ondoko hauen arabera sailkatzen dira: erlijio-erakundeen liburutegiak; Administrazioaren liburutegiak, administrazioaren edozein erakunderi, departamenturi edo legebiltzarri zerbitzu emateko mantentzen direnak, nazioarteko erakundeetakoak, erakunde nazionaletakoak, eskualdeko erakundeetakoak eta toki-erakundeetakoak barne, nahiz eta jendeari oro har ere ematen dieten zerbitzu; ikerketa-zentroetako liburutegiak, ikerketaren arloan aritzen den erakunde baten mende daudenak, erakunde horrek ikertzen duen arloan edo arloetan espezializatu-

LIBURUTEGIAK

tako funtsen bildumak dituztenak, Errege Akademiak eta unibertsitate-enpresa fundazioak barne, goi-mailako heziketa-erakundeetako liburutegiak kontuan hartu gabe; elkarte eta elkargo profesionalen liburutegiak, elkarte profesionalak, sindikatuek eta antzeko beste elkarteek mantentzen dituztenak, xede nagusizat lanbide edo ofizio jakin batetako langileei zerbi-tzu ematea dutenak; enpresetako edo merkataritza-etxeetako liburutegiak; artxiboetako eta museoetako liburutegiak; osasun-zentroetako liburutegiak; bestelako liburutegi espezializatuak: aurreko kategorietan sartuta ez dagoen beste edozein liburutegi.

ESPAINIA

Liburutegia. (ISO 2789): liburutegi bat izango da xede nagusia dokumentuen bilduma antolatu bat biltzea eta mantentzea eta, informazioaren, ikerketaren, hezkuntzaren, kulturaren edo aisialdiaren arloekin zerikusia duten beharrak asetzeko helburuarekin, erabiltzaileen artean informazio-baliabideen erabilera sustatzea dituen erakundea edo erakundearen atala.

Ikuspegi estatistikotik, bi dira garrantzia duten definizioak:

Liburutegia unitate administratibo bat da, hots, kudeaketa tekniko eta administrazio propiorako gaitasuna duen liburutegia edo zuzendaritza edo administrazio bakar baten mende dagoen liburutegi-multzoa.

Zerbitzu-guneak dira liburutegi independenteak, liburutegi nagusiak eta mendekoak, finkoak eta mugikorak (liburutegiak diren autobusak, trenetan dauden liburutegiak, eta abar), betiere erabiltzaileei zerbitzu zuzena eskaintzen dietenean. Zerbitzu-guneen definiziotik kanpo geratzen dira liburutegi funtzioa betetzen duten autobusen geltokiak.

KATALUNIA

A G I R I T E G I A K

Agiritegiak. Artxibo-zentroak eta -zerbitzuak dira balio iraunkorra duten dokumentu ez-aktiboak eskuratzen, tratatzen, kontserbatzen eta zabaltzen (agiritegi historikoak) eta dokumentu aktiboak eta erdi-aktiboak kudeatzen jarduten diren establezimenduak. Establezimendu horiek kudeatzen edo kontserbatzen dituzten artxiboak testu-dokumentuak, argazkiak, mapak eta planoak, soinu-grabazioak, filmak eta bideoak, eta dokumentu teknologikoak izan daitezke, enpresa, erakunde edo partikular batek bere beharrei erantzuteko edo bere jarduerak garatzeko jasotzen edo ekoizten dituenak.

Xedetzat balio iraunkorra duten dokumentu ez-aktiboak kudeatzea duten artxibo-zentroetan eta -zerbitzuetan, dokumentuak artxibo-bildumatan edo -funtsetan biltzen dira baita ere. Artxibo-funtsak mota guztietako dokumentu-multzoak dira, administrazio-unitate batek edo pertsona fisiko edo moral batek, bere jardueren edo funtzioen garapenean, automatikoki eta organikoki biltzen dituenak. Aitzitik, artxiboen bilduma bat jatorri ezberdina duten dokumentuen multzo artifizial bat da, ezaugarri komun baten arabera biltzen direnak, hala nola eskuratze-moduaren arabera, gaiaren arabera, hizkuntzaren arabera, euskarriaren arabera, dokumentu-motaren arabera, eta abar. Dokumentu aktiboak edo erdi-aktiboak bakarrik kudeatzen dituzten erakunde publikoen artxibo-zerbitzuak ere sartzen dira.

Artxibo-zerbitzuak honako atal hauetan bereizten dira: kultura eta gizartea, heziketa eta ikerketa, erlijio-erakundeak, osasuna eta gizarte-zerbitzuak, gobernu eta udal sektorea, finantzak, ekonomia eta lana.

QUEBEC



Agiritegiak. Agiritegiaren kontzeptua zehazteko, Espainiako Ondare Historikoaren 1985eko ekainaren 26ko 16/1985 Legean jasotako definizioa hartu da kontuan. Horren arabera, “*Agiritegiak dira dokumentuen multzo orga-*

ESPAINIA

AGIRITEGIAK

ESPAINIA

nikoak, edo dokumentu bat baino gehiago biltzen diren kasuak, betiere dokumentu horiek pertsona juridiko, publiko edo pribatuek bere lanean biltzen badituzte, eta ikerketa, kultura, informazioa eta administrazio-mailako kudeaketa burutzeko erabilgarri badaude. Modu berean, Agiritegitzat joko ditugu, lehen aipatu ditugun multzo organikoak gordetzen, kontserbatzen, antolatzen eta hedatzen diren kultur erakundeak, betiere lehen aipatu ditugun helburuekin erabiltzen badira.”

Estatuko agiritegia. Estatuko titulartasuna duen agiritegia da. Kultura Ministerioari dagokio hori kudeatzea.

Dokumentua. Dokumentuaren kontzeptua zehazteko, Espainiako Ondare Historikoaren 1985eko ekainaren 26ko 16/1985 Legean jasotako definizioa hartu da kontuan. Horren arabera, *“Lege honen ondorioetarako, dokumentutzat joko dugu, edozein euskarri materialetan, baita informatika-euskarritan ere, jasotako edonolako adierazpena, hizkuntza naturalean edo konbentzionalen egindakoa, baita adierazpen grafikoak, soinu-adierazpenak eta irudien bidezko adierazpenak ere. Ez dira dokumentutzat hartzen jatorrizkoak ez diren edizioen aleak. Ondare Dokumentalaren zati dira edozein garaiko dokumentuak, izaera publikoko edozein erakundek, Estatuak kapitalaren gehiengoa duen pertsona juridikok, edo bestelako erakunde publikok sortuak, kontserbatuak edo bilduak badira, bai eta aipatu zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten pertsona pribatuak, fisikoak edo juridikoak sortuak, kontserbatuak edo bilduak badira ere. Modu berean Ondare Dokumentalaren zati dira berrogei urte baino gehiagoko antzinatasuna duten dokumentuak, betiere izaera politiko, sindikal edo erlijiosoa duten erakundeek edo elkarteek eta izaera pribatuko erakunde, fundazio eta kultur elkarteek eta hezkuntza-elkarteek sortuak, kontserba-*

AGIRITEGIAK

tuak edo jasoak badira. Aldi berean Ondare Dokumentalaren barruan sartuko ditugu ehun urte baino gehiagoko antzintasuna duten dokumentuak, betiere beste edozein erakunde partikular edo pertsona fisikok sortuak, kontserbatuak edo jasoak badira. Estatuko Administrazioak Ondare Dokumentalaren barruan sartu ahal izango ditu beste hainbat dokumentu, eta aurreko ataletan aipatutako antzintasunik ez badute ere, Ondare Dokumentalaren barruan sartzea merezi duten.”

Funtsak. Funtsak dira agiritegietan gordeak izateko informazio interesgarria duten euskarriak.

ESPAINIA

Kataluniako Gobernuak Ondare Kulturalaren Zuzendaritza Nagusiari atxikita dagoen Agiritegien Zuzendariordetza Nagusiaren bidez gauzatzen ditu ondare dokumentalaren inguruan dituen eskumenak. Oinarrizko lege-esparrua 1979ko Autonomia Estatututik dator, eta Kataluniako Ondare Kulturalari buruzko 9/1993 Legean eta Agiritegien eta Dokumentuen 10/2001 Legean gauzatzen da. Horiek ondorengo definizio hauek ezartzen dituzte:

Dokumentua: hitzezko, idatzizko, irudizko edo soinu-zuko lengoaia-adierazpen oro, naturalak edo kodifikatuak izan, edozein euskarri materialetan jasotakoak, eta baita beste edozein adierazpen grafikotan ere, gizabanakoaren eta giza taldeen gizarte-jardueren eta funtzioen lekuko direnak, ikerketa- edo sorkuntza-lanak alde batera utzita.

Funts dokumentala: pertsona fisiko edo juridiko batek, publikoa edo pribatua izan, bere esperientzian zehar eta dagozkion jardueren eta funtzioen garapenean sortu edo jaso dituen eta prozesu natural batean bildu diren dokumentuek osatutako multzo organikoa.

KATALUNIA

AGIRITEGIAK

Dokumentu-bilduma: irizpide subjektiboen edo kontserbazio-irizpideen arabera biltzen eta antolatzen diren dokumentuen multzo ez organikoa.

Agiritegia: Berariaz dokumentuak eta dokumentu-funtsak antolatzeko, zaintzeko, kudeatzeko, deskribatzeko, kontserbatzeko eta hedatzeko funtzioak betetzen dituen erakundea. Agiritegizat hartzen da, baita ere, funts dokumentala edo funts dokumentalen multzoa.

KATALUNIA

IKUS - ARTEAK

Ikus-arteak. Ikus-arteak dira pintura, eskultura, estanzioa, diseinua, argazkigintza, ehun-arteak, instalazioak, *performanceak*, arte-bideoak edo antzeko beste adierazpen-moduak. Arte-ofiziotzat hartzen da lan erabilgarrien, apaingarrien edo adierazgarrien artisau-ekoizpena, egurraren, larruaren, ehunen, metalaren edo beste edozein materialen eraldaketari lotutako ofizioen bat gauzatuz egiten dena. Arte mediatikotzat hartzen da esperimendu- edo ikerketa-izaera duten eta zinearen, bideoaren, audio-grabazioen edo multimedia tekniken erabilera inplikatzan duten adierazpen-lanen sorkuntza.

ESPAINIA

.....

Arte-galeriak. Jendeari irekitako lekuak dira, ustiapen pribatukoak, jarduera nagusitzat artelanen erakusketa eta salerosketa dutenak, eta, neurri handiagoan ala txikiagoan, sormena estimulatzeraz eta artea, artistak eta horien sormenari eragitea ere xede dutenak.

KATALUNIA

ARTE ESZENIKOAK

Aretoak. Establezimendu horien jarduera nagusia gizartean ikuskizunak hedatzea da. Xede horrekin, establezimendu horiek programazio bat prestatzen dute, emankizunetarako eskubideak eskuratzen dituzte, eta emanaldi horiek espazio edo areto jakinetan programatzen dituzte. Hedatzaile batzuk ikuskizunen programazio erregularra eskaintzen dute; beste batzuk, berriz, noizean behin besterik ez dituzte eskaintzen ikuskizunak, beraiek antolatzen dituzten jaialdien edo ekitaldien barruan. Ikuskizunen hedatzaileek beren jabetzakoak diren aretoak edo ikuskizun-guneak ustiatu ditzakete, edo, bestela, ikuskizunak beste pertsonak ustiatzen dituzten instalazioetan aurkez ditzakete.

Artistak. Profesionaltzat hartzen dira artea beren kontura gauzaten duten artistak, betiere diziplina-kideek aitortutako gaitasuna eta talentua dutenean, eta ingurune profesional batean hedatzen diren obrak sortzen dituztenean.

QUEBEC

Antzokia. Urte osoan zehar jardun diren ala ez kontuan izan gabe, izaera egonkorra duten eta neurri handi batean antzerki-, musika- nahiz dantza-emanaldietarako balio duten espazioak. Antzerki klasikoa, komikoa, dramatikoa eta bestelako antzerki-lan heterogeneoak (irakurketa dramatizatuak, mimoa, txotxongiloak, eta abar) hartzen ditu barruan.

ESPAINIA

Antzokia. Antzezlanak emateko beharrezkoak diren baldintza teknikoak dituen ekipamendu iraunkorra da. Bere erabilera nagusia ikuskizun eszenikoen programazioa da. Urtean gutxienez 5 antzezlan programatu behar ditu, urte osoan zehar banatuak (1999. urtera arte urtean hamar emanaldi zituzten aretoak bakarrik sartzen ziren erroldan).

KATALUNIA

ARTE ESZENIKOAK

Konpainia. Egoitza Katalunian duen erakunde publiko edo pribatua da; bere ekimenez eta erantzukizunez lan eszeniko bat gauzatzen da. Gutxienez hiru urtez jardun duten konpainia profesionalak besterik ez dira hartu kontuan.

KATALUNIA

M U S I K A

Konpositore-moldatzaile independentea. Talde honetan sartzen dira idatzitako musika-lanak beste modu batean interpretatuak izateko moldaketak egiten dituzten establezimenduak (baita sortzaile independenteak ere). Moldaketan barruan sartzen da musika-lan baten ber harmonizazioa edo garapena, linea melodikoa eta erritmikoa erabat nabarmentzeko, orkestrarako partitura gisa aurkeztuz.

QUEBEC

Musika-generoak. 10 talde handi bereizten dira, editatutako lanaren musika-generoaren arabera:

- *Musika instrumentala.* Instrumentu batentzat edo gehiagorentzat konposatutako musika, ahotsik gabe.
- *Ahots-musika.* Ahotsentzat bakarrik edo instrumentuz lagundutako ahotsentzat konposatutako musika.
- *Musika sinfoniko-korala.* Ahotsak, bakarlariak eta/edo abesbatza dituen orkestra handi batentzat konposatutako lana.
- *Musika eszenikoa.* Antzeztua izateko konposatutako lana.
- *Musika elektroakustikoa eta esperimentalak.* Sorgailu elektronikoen bidez egindako edo grabatutako soinuak erabiltzen dituen musika.
- *Antzezlanetarako musika.* Bereziki antzezlan bati lotuta entzuna izateko konposatu den musika. Gaur egun kontzeptu hori zabaldu egin da, zinema, telebista, irratia eta publizitatea bezalako beste arloei aplikatuz.
- *Musika arina.* Musika gozo eta gogora erraza, beste musikak baino errazago entzuten eta gogoratzen dena.
- *Musika tradizionala.* Ahozko tradizioko musika, maiz oso estilo errazekoa. Normalean nekazal jatorria du, eta musikari ez profesionalek interpretatzen dute.
- *Flamenkoa.* Andaluziako orientalismo musikaleko zenbait elementuren arteko fusioak eratzen duen musika, ijito adierazpen-modu berezi batzuen barruan.

ESPAINIA

M U S I K A

- *Jazza*. Estatu Batuen hegoaldeko musika, XIX. mendearen amaierakoa, garai ezberdinetan eta hainbat estiloren bidez bilakatzen joan dena.

ESPAINIA

Z I N E M A

Zinea. Lan zinematografikoak edo ikus-entzunezko lanak, horiek filmak, banda magnetikoak edo beste edozein euskarri izan, sortzen, ekoizten, banatzen, hedatzen edo saltzen jarduten diren establezimenduak dira. Lan zinematografiko bat edo ikus-entzunezko lan bat irudien sekuentzia bat da, mugimendu-ilusioa eragiten duena. Zinemaren eta ikus-entzunezkoen sektoreko heziketa profesionalerako zentroak ere kontuan hartzen dira.

Ez dira kontuan hartzen: jarduera nagusitzat telebista-eta irrati-emanaldiak dituzten establezimenduak.

QUEBEC

Zinea. Filmak ematen dituzten areto-multzoak, helbide berean kokatzen direnak eta leihatilen kudeaketarako sistema bakarra dutenak. Sistema horri esker, ordenagailu edo tokiko sare batetatik kontrola daiteke areto desberdinetako programazioa eta salmenta.

Aretoa. Zine-emanaldiak eskaintzen dituzten lokalak edo kanpo libreko espazioak. Zine batek zine-areto bat edo gehiago izan ditzake.

ESPAINIA

ALDIZKAKO ARGITALPENAK

Aldizkako argitalpenak. Sektore honetan sartzen dira nagusiki aldizkariak editatzen, inprimatzen, banatzen eta hedatzen dituzten establezimenduak, aldizkari horiek inprimatuak izan edo euskarri elektronikoan egon. Aldizkari bat urtean behin baino gehiagotan editatzen den argitalpena da, betiere publizitate-edukia %70 baino gehiagokoa ez denean, eta interes orokorreko gaiak lantzen dituenen, edo berariazko gaien inguruko azterlanei eta informazio dokumentalari buruzkoa denean: legeak, finantzak, merkataritza, medikuntza, moda, kirola, umorea, eta abar. Aldizkariak dira magazinak, aldizkari espezializatuak, egunkariak, astekariak eta aldizka argitaratzen diren bestelakoak.

Ez dira kontuan hartzen:

- Katalogoak, prospektuak, urteko telefono-gidak, ikuskizunen edo jaialdien programak, prezio-zerrendak, merkataritza-iragarkiak edo publizitate turistikoak.
- Enpresen barruan zabalduko diren argitalpenak, komunikatuak edo informazio-buletinak.
- Seriean egiten diren argitalpenak, urteko gidak adibidez.
- Quebecen inprimatuta dauden arren Quebecetik kanpo editatzen diren argitalpenak.

QUEBEC



kulturabehatokia@ej-gv.es